

**EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen
Arloko Plana**

Behin betiko onarpena

III. LIBURUKIA. Justifikazio Memoria

Martxoa 2007

AURKIBIDEA

1	LAP IDAZTEKO EGOKITASUNA ETA AUKERA	3
2	LAP-AREN LURRALDE EREMUA	4
2.1	ITSASERTZ-EREMUAREN DEFINIZIO ADMINISTRATIBOA.....	4
2.2	LAPAREN ANTOLAMENDU-EREMUA	5
2.2.1	<i>Aldez aurreko oharrak</i>	5
2.2.2	<i>Antolamendu-esparrua.....</i>	6
2.3	BESTE HAINBAT TRESNAREN BIDEZ ANTOLATUTAKO ESPARRUAK.....	7
2.4	LAPA ANTOLATZEKO ESPARRUAREN ADIERAZPEN GRAFIKOA.....	8
3	LAP-AREN HELBURUAK	8
3.1	PRINTZIPIO IRADOKITZAILEAK	8
3.2	HELBURU OROKORRAK	9
3.3	HELBURU BEREZIAK.....	10
4	ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDEAK ETA PROPOSAMENAK.....	11
4.1	SARRERA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
4.2	ANTOLAMENDUA, LEHORREKO INGURUNEAN.....	11
4.2.1	<i>Artezpide orokorrak</i>	12
4.2.2	<i>Jardueren eta lurzoruaeren erabileren definizioa</i>	13
4.2.3	<i>Antolatzekeo kategoriak.....</i>	14
4.2.3.1	<i>Definizioa eta sistematizazioa</i>	14
4.2.3.2	<i>Antolamendurako Kategoriak esleitzeko irizpideak</i>	19
4.2.4	<i>Gainjarritako baldintzatzaileak</i>	22
4.2.5	<i>Lurreko kostaldeko ertzetan erabilerak eta jarduerak erregulatzea.....</i>	23
4.3	ITSASADARRETAKO ERTZEN ANTOLAMENDUA LEHORREAN.....	24
4.3.1	<i>Aldez aurreko oharrak</i>	24
4.3.2	<i>Itsasertza Babesteko ikuspegiak.....</i>	30
4.3.3	<i>Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzekeo LAParekin koordinazioa</i>	31
4.3.4	<i>Hirigintzako hazkuntzak eta babes-zortasuna.....</i>	32
4.4	ITSAS INGURUNEAREN PLANGINTZA	33
4.4.1	<i>Arau orokorrak.....</i>	34
4.4.2	<i>Erabileren definizioa itsas ingurunean</i>	34
4.4.3	<i>Plangintza-sektoreen definizioa itsas ingurunean.....</i>	36
4.4.4	<i>Sektoreen esleipena itsas ingurura.....</i>	39
4.4.5	<i>Erabileren erregulazioa</i>	41
4.5	JARDUTEKO PROPOSAMEN OROKORRAK	42
4.5.1	<i>LAAetako 3. Eranskinaren interes naturalistikoko eremuak mugatzea eta antolatzea</i> <i>42</i>	
4.5.2	<i>Espazio babestu berriak aitortzekeo proposamena</i>	43
4.5.3	<i>Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesten duen 3/1998 Legearen 51.</i> <i>artikuluaren arabera, Kalte Errazeko Ingurumena duen Zona mugatzea</i>	44
4.5.4	<i>Kostaldea Bereziki Babesteko Esparruen definizioa, Kostaldee buruzko Legearen</i> <i>22. artikuluaeren arabera.....</i>	45
4.5.5	<i>Saneamendu Planen garapena.....</i>	46
4.5.6	<i>Leheneratu beharrekeo hondartzak eta senaiak</i>	46

1 LAP IDAZTEKO EGOKITASUNA ETA AUKERA

Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretu bidez behin betiko onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen dokumentuan, honako hau adierazten da: bertan erabakitako gauzak garatuko dituzten Planen artean Lurraldearen Zatiko Planak (Eremu Funtzionalei buruzkoak) eta Lurraldearen Arloko Planak (Autonomia Erkidego osorako balio duten lurraldearen antolamenduan alderdi horizontalen erregulazio zehaztua aztertuko dute) daudela.

LAAen 8. kapituluan (Ingurune Fisikoaren Artezpidea: –Ekintza Positiboko Neurriak–), adierazten den bezala, *“Ingurune Fisikoaren Artezpidea, honako tresna hauen bidez garatuko dute: (...) “ingurune fisikoan” eragiten duten Lurraldearen Arloko Plan eta Arauen eta, zehazki, Itsasertza Babestu eta Antolatzeako Lurraldearen Arloko Planaren, eta Hezeguneak Babestu eta Antolatzeako Lurraldearen Arloko Planaren bidez”*. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan Planari buruzko erabaki espezifiko gehiegi ez dauden arren (eurak garatzeko tresna gisa, Lurraldearen Zatiko Planei garrantzi handiagoa ematen dietelako), Artezpideen ondoriozko erabakiak betetzeko oinarritzko elementuak dira.

Une honetan, antolamendu-irizpideak eta helburuak orokorrean ezartzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onartuta, eta eremu zabalen egitura ekonomikoa (industria-birmoldaketa) aldatzen ari dela, eta turismo eta aisiarako eskaerak handitzen ari direla kontuan hartuta, une egokia da itsasertzeako zerrendaren antolamendua berriz aztertzeko orokorrean.

Itsasertzaren antolamenduaren eta Kostaldeei buruzko Legeen ondoriozko antolamenduaren arloetan EAEren eskuduntzak bat-egiteak, eta euskal itsasertzaren plangintza integratua ez egoteak eraginda, itsasertzeako espazioaren fenomeno, jarduera eta ezaugarri berezien azterlana atzeraezina da, eta itsasertza zaindu, hobetu, ondo erabili eta kudeatzeko, beharrezkoak diren antolatzeako eta planifikatzeko tresna espezifikoak ezarri behar dira.

Halaber, itsasoko eta lehorreko itsasertzeako espazioaren eta bere eragin-eremuaren erabilera eta jarduera guztiak, daudenak eta egon daitezkeenak, hartu behar dira kontuan eta osotasunean tratatu; eta honek, gutxienez, hirigintzarekin, ingurune fisikoarekin eta naturalarekin lotutako alderdiak, ekonomia eta produkzioko aparatuarekin lotutako alderdiak, eta arau eta legeen arloko alderdiak hartu behar ditu kontuan.

Kasu horretan adierazi behar da, Eusko Jaurlaritzaren esku utzitako itsasertzera jaurtitako isurkien kontrola, eta itsasoko eta lehorreko jabari publikoa babesteko zortasun-zonako erabileren arloan eskuduntzen esleipena, arazo honi aurre egiteko elementu interesgarriak direla ere.

Bestalde, itsasoko eta lehorreko jabari publikoa eta babes-zortasuneko zonak, bertako balio naturalak kontserbatzeko egokiak ez diren elementuz okupatu izanak, eta zenbait esparru mugatzeko garaian, Kostaldeei buruzko Legea bere osotasunean aplikatu ez izanak, gaia orokorrean eta globalki tratatu beharra eskatzen du.

Horrenbestez, Plana idaztea, egokia izateaz gain, premiazkoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduaren esparruan.

2 LAP-AREN LURRALDE EREMUA

2.1 Itsasertz-eremuaren definizio administratiboa

Itsasertza, itsasoko eta lehorreko eremu administratibo edo jabari publiko den aldetik, zehatz-mehatz definitzen du Kostaldeei buruzko 22/1988 Legeak, uztailaren 28koak, eta estuarioak dira muga jabari publiko hidraulikoko eremu administratibo definitutakoarekin, ondorengoaren arabera: 29/1985 Legea, abuztuaren 2koa, Urei buruzkoa.

Hain zuzen ere, Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko Legea garatu eta burutzeko Araudi Orokorren 3. artikulua arabera, ***“itsasoko eta lehorreko jabari publikoko ondasunak dira itsasoko eta itsasadarretako erribera (...) Zona hori ibaiertzetara ere hedatzen da, betiere mareen eragina iristen den punturaino. Zona horretan sartzen dira padurak, albuferak, istingak, zingirak eta, oro har, mareen gorabeheraren, uhinen edo itsasoko ura iragaztearen ondorioz, urak hartzen dituen lursail baxuak”***.

Ondorengo legeak estuarioen jurisdikzio-mugak are gehiago zehazten ditu, ur kontinentalen mugak eta lurralde barneko itsasoaren barne-urak mugak definituz: 258/1989 Errege Dekretuaren, martxoaren 10ekoa, lurretik itsasora isuritako substantzia arriskutsuei buruzko araudi orokorra ezartzen duena.

Aipatutako Dekretu horrek honela definitzen ditu barne-urak 2. artikuluan: ***“kostaldearen eta Estatuak lurraldeko itsasoaren barne-muga moduan ezarritako oinarri zuzeneko lerroen artean dauden urak”***. Ibaibideei dagokionez, ***barne-ur horiek ur kontinentalen mugaraino hedatzen dira. “Ur kontinentalen muga” da “mareen eragina nabaritzen den ibaibideetako tokia, edo, mareak ez gertatuta ere, itsasoko uraren presentziaren ondorioz, gazitasuna nabarmen hazten den tokia”***.

Era berean, Ingumenaren Kontseiluak 1994an bi erabaki hartu zituen eta, horietan, Europako Batzordeari eskatzen zion Europar Batasunaren **itsasertza** era integratuan kudeatzeko eta iraunkorki garatzeko Batasunerako estrategia bat proposa zezan. Itsasertzaren barne kokatzen dira ***“itsasoaren ertzak, estuarioak eta kostaldeko urak eta itsasoaren eragina duen lur-zerrenda”***.

Beraz, argi eta garbi geratzen da Kostaldeein buruzko Legeak araututako administrazio-eremua eta Urei buruzko Legeak araututako administrazio-eremua zeintzuk diren, baita itsasoaren erribera (lurraldeko itsasoa) ibaibideetan gora hedatzen dela marea eragina iristen den punturaino ere.

Atariko Tituluan Kostaldeein buruzko Legean zehazten denez, *“itsasoko eta lehorreko jabari publikoa kontserbatzeko bermea ezin da lortu kalifikazio juridiko hori daukan zerrenda estuaren gaineko ekintza eraginkor baten bidez; izan ere, ezin bestekoa da ere zerrenda pribatu mugakidean ere jarduerak egitea”*. Hartara, lursail mugakideetan jabari horretarako **babes-zortasun bat** eratzen da, kaltetzen hain erraza den natur ingurunea egoki babesteko beharrezkoa dena; horretarako, kaltegarritzat jotako jarduera eta eraikuntza jakin batzuk debekatu egiten dira izaera orokorraz.

Bete-beteen zortasuna izan gabe, Legeak **eragin-zona** bat ere definitzen du eta, horietan, planifikatzailearentzako jarraibide batzuk zehazten dira. Horrez gain, Autonomia Erkidegoek ingurumen-gaietan emandako neurri gehigarriak promulgatu eta EAEn lurraldearen eta itsasertzaren antolamenduari buruzko eskumenak erabil ditzakete.

Aipatutako Araudiaren 18,19 eta 203. artikuluetan ezartzen den bezala, itsasoko eta lehorreko jabari publikoko esparrua eta bere babes-zortasuneko zona, dagokion **mugatzearen** bidez definitzen du Estatuko Administrazioak, betiere alde aurretik, besteak beste, Autonomia Erkidegoaren txostena jasota.

2.2 LAParen antolamendu-eremua

2.2.1 Aldez aurreko oharrak

Aurreko atalean adierazi bezala, Kostaldeein buruzko Legearen eta Araudiaren zuzeneko eraginpeko itsasertzeko zerrenda txikiegia da LAP hau erredaktatzera bultzatu duten arazoak antzeman diren kostalde-lurraldeekin alderatuta. Hala ere, irismen handiagoko konfigurazio-irizpideak –geomorfologikoak, prozesuen eraginpekoak, ekonomikoak, ingurumen-unitate gutxi gorabehera homogeneousak mugatzeko irizpideak eta abarrekoak– onartuko bagenu, zehaztuko genukeen kostalde-tartea batzuetan 3 km-tik gorako zabalerakoa izango litzateke, eta, bertan, udalerrirarteko lurraldearen antolamendurako hirigintza- eta ingurumen-neurrien aplikazioa justifikatzea zaila gerta liteke batzuetan, baita beste plan batzuetan txertatutako EAEko lurraldearen antolamenduaren kalterako ere.

Horregatik eta kontuan hartuz Plan honen helburuen artean euskal itsasertz osoa natur ondare preziatutzat hartzea dagoela eta beharrezkoa dela babes-neurriak ezartzea jardueren ezarpen-dinamika nabarmenak sortutako eraginak gutxi ditzaten, antolamendu-esparrua Informazio eta Diagnostiko Fasean definitutako lurralde-esparrua behin aztertuta eta diagnostikatuta definitu dugu.

2.2.2 Antolamendu-esparrua

Goian aipatutako oharrak gogoan izanik, erabakia hartu da LAP honen antolamendu-esparrutzat Kostaldee buruzko Legean definitutako Eragin Zona hartzeko: “*itsasoaren erriberako barne-mugatik zabaleraz gutxienez 500 m-ko zerrenda*”. Zona hori ibaiertzetara ere hedatzen da, betiere mareen eragina iristen den punturaino (Euskal Herrian itsaso gainetik 5 metroko kotan dago).

Zerrenda hori itsasertzeko prozesuen eragin-zona baino *antolamendu-esparru* murriztagoa da; dena den, nahikoa da itsasertz-sisteman zuzenean eragiten duten erabilerak eta jarduerak bil ditzaketen espazioen zein jarduera horiek erasandako itsasertzeko ekosistemen antolamendua berma dezan.

Eragin Zona Kostaldee buruzko Legean honela definitzen da: “zona bat da eta, bertan, jarraibide batzuk ematen zaizkio planifikatzaileari babes-zortasuneko zonaren ertzean arkitektura-pantailarik era ez dadin edo espazio horretan hirigintza-antolamenduan komenigarritzat edo erabilgarritzat jo daitekeen konpentsaziorik pila ez dadin”. Horrez gain, Autonomia Erkidegoek, baita lurraldearen antolamendu gaietako euren eskumenak baliatuz aipatutako Erkidegoek eta Udalek ere, ingurumen-arloko babes-neurri gehigarriak ezar ditzakete.

LAP honen lehorreko eta trantsizioko ingurune antolamendu-esparruak, beraz, itsasertzeko zerrenda bezala definitutako espazioa hartzen du, Kostaldee buruzko Legeak araututako administrazio-espazioarekin neurri batean bat egiten duena. Legeak itsasoko eta lehorreko espazioa ere kontuan hartzen du; espazio-mota horrek esan nahi du zentzu hertsiko itsas espazioarekin bateragarria den lur-eremua (eremu horretarako, Legeak, baliatutako izendapen orokorra itsas erribera da). Itsasoko eta lehorreko espazio hori itsasbeherenaren eta itsasgorenaren arteko tartek osatzen du.

Halaber, Informazio- eta Diagnostiko-dokumentuetan agerian jartzen denez, argi eta garbi bereiz daitezke kostaldeko lehorreko ingurune ertzak eta ibaiertzak, xehetasuneko ezaugarri fisiografikoetan ez ezik, zonen ingurumen-egoeraren aldetik ere. Halaber, bi ertzak nozitzen dituzten gizarte- eta ekonomia-garapenaren zein jardueren ezarpenaren aldetik oso maila desberdinak dituzte.

Laburbilduz, antolamendu-proposamenak garatzeko maila, eta aplika daitekeen kasu bakoitzean erregulazioa zehazteko, LAP honen antolamendu-esparrua honela mugatuko da:

- **Kostaldeko ertza:** zentzu hertsiko lehorreko ingurunea eta itsasoko eta lehorreko espazioa hartzen ditu bere baitan; espazio hori itsasbeherenaren eta ekinozioko itsasgoren biziaren arteko tartek osatzen du, betiere ondorengo b) atalean deskribatutako zonak salbu.
- **Ibaiertzak:** ibaien inguruko lehorreko ingurunea eta itsasoko eta lehorreko espazioa hartzen ditu bere baitan: bokaletik hasita ibaiertzetan zehar harik eta mareen eragina nabaritzen den punturaino (Euskal Herrian itsaso gainetik 5 metroko kotan dago). Antolamenduari dagokionez, ibaien ertzen eta lehorreko ingurunearen kostaldeko ertzaren arteko muga agertzen da.

- **Itsas ingurunea:** mareaz azpiko ingurunea da eta bere zabalera aldakorra da itsasbeherenaren edo ekinozioko itsasgoren biziaren eta 50 m-ko isobataren arteko zerrenda batean.

2.3 Beste hainbat tresnaren bidez antolatutako esparruak

Aurreko atalean definitutako antolamendu-esparruan, beste hainbat plangintza-tresnen tratamendu espezifiko helburu diren azpiesparruak daude. Euren berezitasunagatik eta, hala badagokio, Plan honen helburu orokorrekin bat datozenez, LAP honetako antolamendua, ingurumen-plangintzako edo lurraldearen antolamenduko tresna horietan aplikatzeko gomendatzen dute. Esparruak, honako hauek dira:

- Estatua titularra den itsasoko eta lehorreko jabari publikoaren ondasunen zati izanik, obra publiko handi hauen garrantzia eta berezitasuna kontuan hartuta, legeria espezifikoak duten interes orokorreko portuak.
- Gai honetan ezarritako transferentzia-erabakien arabera, Autonomia Erkidegoaren titulartasuneko portuak.
- Plan honetan sartzen direnekin bat datozen ingurumenaren planifikazioak eta ingurumen naturala antolatu behar dituzten lurrak:
 - Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren eremua Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak antolatuta, ondorengo legearen garapena da: 5/1989 Legea, uztailaren 6koa, Urdaibai Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzkoa.
 - Parke Natural, Biotopo Babestu edo Zuhaitz Berezi izendatutako eremuak Natur Baliabideak Antolatzeako Planetan edo bestelako araudietan oinarrituta antolatuko ditugu, betiere 16/1994 Legearen garapenetik sortutakoak izanik (ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesten duena).
 - Natura 2000 Europako Sare Ekologikoa osatuko duten eremuak. Dagozkion antolamendu-planak onartzen ez dituzten bitartean, Plan hau aplikatuko dute bertan.
 - Txingudiri dagokion eremu hezea alderdi hori Antolatzeako Plan Bereziak antolatuko du.
- Plan honetan jasotakoekin ere bat datozen babesteko helburuen lurralde-plangintza bidez antolatutako lurrak:
 - Honek antolatuko ditu Zona Hezeetako Lurraldearen Arloko Planaren II. Taldeko zona hezeak.

- Lurgaineko Urak Babesteko Lurzoru Urbanizaezina, eta itsasadarren ondoan dauden eta indarrean dauden hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarriak, ibaien eta erreken hertzen LAPek antolatuko ditu.

Aurreko puntuan aipatu ez dituzten indarreko hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarrietan, kostaldeein buruzko legeria eta udal-plangintza bete behar dira.

2.4 LAPa antolatzeako esparruaren adierazpen grafikoa

LAP hau zein esparrutan aplikatuko duten, Plan honetako informazio eta antolatzeako kartografian adierazi dute, 1:10.000 eskalan.

Orokorrean, itsasoaren erriberaren barruko mugatik 500 m-ra lerro paraleloa marraztuz mugatu dute. Mugatze hori Estatuko Administrazioak egin du. Planoan, itsasoko eta lehorreko jabari publikoaren barrualdeko muga, eta itsasoaren erriberako lerroa zehaztuko ditu, bi hauek bat ez datozenean.

Mugatze hori egin ez dutenean, honako irizpide hauek jarraitu dituzte:

1. Mugatzeak egin gabe badaude, Eusko Jaurlaritzaren 1:10.000 oinarri topografikoaren kostaldeko lerroaren paraleloan doan beste lerroa marraztu dute.
2. Nerbioi eta Oiartzungo itsasadarra: beren ertzak Bilbaoko eta Pasaiako portuek eta hauen konurbazioek hartzen dituztenez, eta itsasadar hauek balio natural eskasa dutenez, aplikazio-esparru gisa ez dute mareak eragiten duen tokira arte hartu, eta esparru hori honako puntu hauetan mugatzea erabaki dute:
 - Nerbioiko itsasadarra: Bizkaiko zubia
 - Oiartzungo itsasadarra: Torretxoko nasa

3 LAP-AREN HELBURUAK

3.1 Printzipio iradokitzaileak

EEEko Itsasaldeko Eskualdeetako Konferentziaren Osoko Bilkurak 1981. urtean proposatutako *Itsasertzari buruzko Europako Gutunak*, *Europako Kontseiluko Lurraldearen Antolamenduaren Ministro arduradunen Europako VI. Batzarrak* (1983), *itsasertza antolatzeako Estrategia Europarrari* buruzko Europako Kontseiluak agindutako dokumentuak, eta *Ingurumenari buruz Ministerioen arteko IV. Konferentzia Europarraren proposamenek* (1984) ezarri zituzten itsasertza antolatu eta babesteko politikak osatzeko printzipioak. Printzipio hauek, ondoren, *Itsasertza Kontserbatzeko Europar Konferentzian berretsi zituzten (Haga 1991)*, eta Europako Erkidegoek Europako Parlamentuari eta Kontseiluari Jakinaraztean (1995) gauzatu ziren, bai eta Kostaldeko Zonak babesteari

buruzko 29. *EEEren (73) Erabakiaren* bidez, eta "La Ordenación integrada del Litoral en la Comunidad Europea" eta "Elementos para una Guía de Ordenación Integrada del Litoral Europeo" izeneko bi txostenen bidez. Itsasertzari buruzko LAPak honako printzipio iradokitzaile hauek bere gain hartzen ditu:

- Antolatu beharreko EAEko itsasertzeko esparruaren definizioa.
- Babestu beharreko kostaldeko ondarearen inbentarioa egitea.
- Pilatutako erabileren antolamendu integratu bat emateko irizpide erabilgarrien bidez itsasertza sektoretzea.
- Itsasertzeko baliabide naturalak babestu eta zaintzea.
- Itsasertzeko zerrenda bat eraiki gabe uzteaz gain, jabari eta sarrera publikoko printzipioa babesteko araudia ezartzea.
- Itsasadarrentzako kostaldeko eremurako antolamendu espezifiko ezartzea.
- Itsasoko eta Lehorreko Jabari Publikoa babesteko zortasun-zonan erabiltzeko eta lehorretik itsasora isurtzeko baimenak emateko prozedura ezartzen duen abuztuaren 29ko 196/1997 Dekretuan adierazitakoaren arabera, luzatu behar dituzten baimenak emateko arauak definitzea.
- Itsasertzari buruzko jardun-programa bat ezartzea, honako gai hauekin lotua: itsasoko eta lehorreko jabari publiko eta honen zortasun-zonei buruzko administrazio-koordinazio eta -jarduerekin, azpiegituretan egindako jarduerekin, baliabide naturalak babestu eta hobetzearekin, itsasertzaren erabilera publikoarekin eta itsasertzeko ingurumenaren ezagutza hobetzearekin.

Aurretik adierazitako guztia ikusita, Itsasertzeko LAP honen helburu orokor eta zehatzak adierazi behar dira.

3.2 Helburu orokorrak

Itsasertzeko LAParen xede orokorra da, lurralde-politikak eta hirigintza-jarduerak integratzeko erreferentziako esparru orokor bat ezartzea. Horiek izan daitezke, hala Toki Administrazioek nola udalaz gaindiko administrazio eta erakundeek babestutakoak. Esparru horretan, ezarriko dira hala ekintza estrategikoko oinarritzko ildoak nola itsasertzean egin beharreko jarduera guztien efizientzia eta sinergia handiena lortzeko behar zehaztapenak. Betiere kontuan hartuko da emandako erabilerekiko itsasertza babestu, kontserbatu, hobetu eta arrazionalizatu egin behar dela.

Esparrua hori izanda, Plana bideratzeko helburu orokorrak ondorengoak dira:

- ◇ Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako Ingurune Fisikoaren Antolamendurako Artezpidea garatuz itsasertzeko zerrendaren antolamendua definitzea.
- ◇ Arloko Planak eta Estatuko Administrazioaren, Autonomia Erkidegoaren zein Tokiko Korporazioen Programak bateragarri egiteko modua emango duen koordinazio-programa bat zehaztea.
- ◇ Jarduera Programa integratu bat erabakitzea. Bertan, administrazioa, hirigintza eta itsasertz espazioa berreskuratzeko ekimenak bilduko dira, hala inplikaturako era askotako erakunde eta instituzioen eskumenen erantzukizunaren ikuspegitik nola planteaturako inbertsioen ekonomia- eta finantza-erantzukizunarenetik.

3.3 Helburu bereziak

Informazio eta Diagnostiko Fasean burututako lurralde-azterketa eta -diagnostikoa iturburu hartuta, LAP hau adierazteko helburu bereziak ondorengoak dira:

1. Euskal itsasertz osoa natur ondare preziatutzat jo eta, horrenbestez, jarduera-ezarpenen dinamika nabarmenak sortutako eraginak gutxitzeko babes-neurriak finkatzea. Horretarako, ezinbestekoa da hala lehorreko ingurunean nola itsasokoan ondorengoak zehaztu eta mugatzea: itsasertzeko eta kostaldeko ekosistemak, baita geomorfologia- eta paisaia-unitateak ere, horien uneko edo balizko ezaugarri naturalek kontserbatzea eta babestea arrazoizko egiten dutenean, Babes Bereziko zonei buruzko LAAetako 6.8.1. artezpidea garatuz.
2. Udalen planen prestaketan konplitu beharreko irizpideak, artezpideak eta oinarrizko arauak adierazi, eta udal hirigintza-araudiari gailentzen zaizkion preskripzioak eta araudiak zehaztea. Lurzoru urbanizaezinerako arau lotesleak ezarri, urbanizatzeko moduko lurzoruan dauden gatazkak agerian utzi eta hiri-lurzoruko plangintzarako artezpideak eta gomendioak finkatzea.
3. Planean aplikazio-esparrurako proposaturako antolamendua eta kostaldeei buruzko legedian ezarritako erabilera-erregimena itsasoko eta lehorreko jabari publikoan zein babeseko zortasun-zonan bateragarri egitea.
4. Plana eta itsasertzean indarrean dauden gainontzeko lurralde-, ingurumen- edo natur antolamendu-plangintzako tresnak koordinatzea: Lurraldearen Zatik Planak, Arlokoak (Zona Hezeak, Portuak, Nekazaritza eta Basoak), Urdaibai, Eremu Babestuak, Natura 2000 Sarea, Txingudi.
5. Plana eta EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeako Lurraldearen Arloko Plana (Kantauri Isurialdekoa) ibaien esparruan koordinatzea.
6. Babes Bereziko Zonak zehazteko adostutako irizpideak Administrazio eskumendunari proposatzea, Kostaldeei buruzko Legearen 22. artikulua eta haren Araudia aplikatze aldera.

7. Itsasertzean eta lehorreko ingurune horretan diharduten Administrazioen artean lurralde- eta hirigintza-jardueren arteko koordinazio onena erdiestea (Administrazio Zentrala, Erkidegokoa eta Tokikoa), lehenengo alde bakoitzaren administrazio-eskumenak eta koordinazio-mekanismoak nahitaez errespetatuz.
8. LAP honen *kultur eta natur baliabideen inbentarioko* elementuen araudi aldetik tratatzeko irizpideak ematea.
9. Itsasertzeko eremu batzuk *Kalte Errazeko Ingurumena Duten Zonen Katalogoan* sartzeko irizpideak ematea, betiere 3/1998 Legearen (Euskal Herriko Ingurugiroa Babesten Duenaren) 51. artikuluan definitu bezala.

4 ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDEAK ETA PROPOSAMENAK

Hasieran esan behar da, kapitulu honetako 4. idatz-zatian definitutako esparruei emandako tratamendua diferentea dela, bakoitzaren ezaugarri fisikoak eta hauen inguruan dagoen ezagutza-maila kontuan hartzen baitira.

- Lehorreko esparruan antolamendu-araudia sortu dute. Araudi hori, antolamendu-kategorien lorpenean eta hauen erabilera eta jardueren garapenaren erregulazioan oinarritzen da.
- Itsasoaren esparruan, isurkiak itsasoko eta lehorreko jabari publikora botatzeko erregulazioa salbuetsita, bertan, haien erabileren garapenaren arteztarau orientatzaileak eta plangintza-sektoreak definitzea aukeratu dute, zenbait plangintza-sektoreetan erabilerak salbuetsita eta lehentasuneko erabilerak gomendatuta.

4.1 Kostaldee buruzko Legea aplikatzeagatik ezarritako mugak

Gorago aipatu den moduan, LAP honetan zehaztutako itsasertzeko esparruan erregulazioa beste erregulazioei gainjarrita aplikatzen da. Beste horien artean aipatu behar dira Kostaldee buruzko Legea, bereziki Kostaldee buruzko 22/1988 Lege horren 25. artikulua, eta Laugarren Xedapen Iragankorra. 22/1988 Legearen 25. artikulua, Babes-zortasuneko eremuan erabilera jakinen debekua erregulatzen du; Xedapen Iragankorrek, berriz, Kostaldee buruzko Legea indarrean jarri aurretik eraikitako obra eta instalazioak erregulatzen ditu.

25. artikulua

1. Babes-zortasuneko eremuan debekatuak daude:

- a. Bizitegi edo logela gisa erabiltzeko eraikuntzak.
- b. Herrien arteko garraio-bideak eta araudiak ezarritakoa baino trafiko-intentsitate handiagoko bideak eta hauen zerbitzuguneak eraiki edo aldatzea.
- c. Agregakin-aztarnategiak eraistea ekarriko duten jarduerak.
- d. Goi-tentsioko linea elektrikoen aire-hariteria.
- e. Araztu gabe hondakin-urak, zaborrak eta hondakin solidoak isurtzea.
- f. Kartel edo panel bidez, edo soinu eta ikus-entzunezko baliabideen bitartez publizitatea egitea.

2. Normalean, eremu honetan, berez, beste toki batean egon ezin diren edo, itsasoko eta lehorreko jabari publikoa erabiltzeko beharrezkoak edo egokiak diren zerbitzuak eskaintzen dituzten jarduerak, instalazioak eta obrak bakarrik baimenduko dituzte, bai eta kaleko kirol-instalazioak ere.

Dena den, lubeten eraikuntzek, inausketa-lanek edo zuhaitz-mozketek, jabari publikoaren babesa bermatzeko arauak zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte.

3. Salbuespen gisa, eta behar bezala egiaztatutako erabilgarritasun publikoko arrazoiengatik, Ministroen Kontseiluak, artikulua honetako 1. idatz-zatiko b) eta d) letratan aipatutako instalazio eta jarduerak baimendu ahal izango ditu. Era berean, a) letran aipatutako eraikuntzak eta 2. idatz-zatiko baldintzak ez dituzten industria-instalazioak baimendu ahal izango dituzte, industria-instalazio horiek oso garrantzitsuak badira eta, argi adierazitako arrazoi ekonomikoengatik itsasertzean ezartzea komeni bada. Hala ere bi kasu horietan instalazioak, hondartza, hezegune edo babes bereziko beste hainbat esparru ez diren kostaldeko lekutan ezarri beharko dira. Idatz-zati honetan aurreikusitakoaren arabera baimentzen diren jarduerak, administrazio eskudunek onartzen duten hirigintza-plangintzara egokitu beharko dira.

4.2 Antolamendua, Lehorreko Ingurunean

4.2.1 Artezpide orokorrak

Azpiegiturak, ekipamenduak eta interes orokorreko obrak mugatu eta burutzeko, ondorengo alderdi orokor hauen inguruan osatzen dira Planaren Artezpide orokorrak:

Atal honetan kontuan hartutako jarduerak, saneamendu eta arazketako azpiegitura, Portu, Errepide eta Interes Orokorreko Obrekin lotzen dira. Jarduera horien ezaugarri espezifikoaren ondorioz, zenbait kasutan, jabari publikoan eta berau babesteko zonan kokatu behar dira. Irizpide orokor gisa adierazten dute, jarduera horiek, nagusiki, Nekazaritza eta Abeltzaintzako kategorian sartu behar direla, Babes Bereziko Mailetan kokatzea saihestuz. Kasu guztietan, kokatuta dauden esparruaren ingurumen-balioen kontserbazioa bermatzeko neurri egokiak hartzea gomendatzen dute. LAAen 13. Artezpidearen 5.6.3. idatz-zatian proposatutako toki, oinarri eta lehentasuneko interesa duten errepide-sareetan Paisaiaren gaineko Interesen Kostaldeko Ibilbideak egokitzen badira, jarduerari eta ondoriozko emaria handitu izanari buruz, Ekosistemak Hobetzeko Eremuetan edo Babes Bereziko zonetan

ingurunea zaintzeko prebentzioko neurriak areagotuko dira honako zati hauetan:

- * Gorlitz-Bakio: Matxitxako eta San Juan de Gaztelugatxe artean
- * Mundakako itsasadarra: Gernika eta Ibarrangelu artean, Urdaibaiko Erreserban zehar
- * Otoioko itsaslabarrak eta mendia
- * Mutriku-Debako itsaslabarrak
- * Zarautz-Getaria artean N-634 errepidea konpontzea

4.2.2 Jardueren eta lurzorua erabileren definizioa

Lurraldearen Arloko Plan honen erabilerak eta jarduerak, LAAek horiei buruz egiten duten definizioa eta sistematizazioa oinarri hartuta daude araututa. Dena den, batzuetan, lan xeheagoa egin dugu, erabilera eta jarduera batzuk garatzeko baldintzak gehiago zehazteko beharra bazegoen.

Xehatze hori, Plan honen helburuak, itsasertzeko ingurunerako erasanak eta antolatutako zonen ezaugarri espezifikoak kontuan hartuz egin dugu.

Definitutako erabilera eta jarduerak ondorengoak dira:

- A) Ingurumena babesteari buruzkoak. Honelako atalak ditu: kontserbazio zorrotzeko zein aktiboko jarduerak, ingurumena hobetzekoak eta kultura- zein zientzia-arloko jarduerak (ingurunearen azterketak eta ikerketa bultzatze aldera).
- B) Denbora libre eta aisialdiari buruzkoak. Aztertutako erabilerak ondorengoak dira: erabilera publiko estentsiboa (ekipamendu gabea), erabilera publiko intentsiboa eta bere ekipamenduak (jolasa gune jakinetan, bainua, itsas jarduerak, kanpinak, ibilgailuen zirkulazioa, golf-zelaiak, aire libreko kirol-instalazioak eta zientzia- zein kultura-arloko instalazioak) eta kirolerako ehiza- eta arrain-jarduerak.
- C) Lehen mailako baliabideak ustiatzeari buruzkoak. Honelako erabilera eta jarduerak hartzen ditu kontuan: Nekazaritza, Abeltzaintza, Baso Erabilera, Nekazaritza eta Abel Industriak, Akuikultura, Arrantza, Arrantza Industriak eta Erauzketa Jarduerak, betiere jarduera horiei buruzko eraikuntzak eta praktikak barne.
- D) Azpiegiturei buruzkoak. Honelako jarduerak sartzen dira: Garraio Bideak, Hornidura Lineak (airekoak zein lurpekoak), zerbitzu-instalazio ez linealak (A eta B motakoak), ubideratzeak, uretako kirol-instalazioak, itsas pasealekuen eraikuntza, kostaldea defendatzeko obrak, instalazio aeronautikoak eta hesien zein publizitate-iragarkien instalazioak.

E) Hirigintza-hazkunde eta eraikuntza-jarduera bakartuei buruzkoak. Erabilera eta jardueren talde honetan kokatzen dira hiri-hazkundeak, Erabilera Publiko eta Gizarte Intereseko eraikuntzak, Lurzoru Urbanizaezinean bakartutako etxebizitzak, industria edo biltegiatze arriskutsuak eta itsasoko eta lehorreko jabari publikoari lotutako industriak.

4.2.3 Antolatzeako kategoriak

Antolamendu-kategoriak LAAek lurzoru urbanizaezinerako definitutako lurralde-eredua osatzen dute eta lurraldea sektore homogeneotan zonakatzen dute, euren harrera-gaitasunaren arabera definituta, eta horietako bakoitzari erabilera-araudi bat aplikatzen zaio bere ezaugarrien arabera. Funtzio bikoitza dute: hirigintza-plangintzan lurzoru urbanizaezina kalifikatzeko izendapenak homogeneo egin eta lurralde- zein udal-plangintzan horrelako lurzoruak antolatzeako irizpide orokorrak ezarri, lurzoru urbanizaezineko erabilera eta jardueri buruzko araudia bideratuz.

LAAen Ingurune Fisikoaren Artezpidearen 6.2. idatz-zatian zehazten den bezala (8. kapitulua), aipatutako kategoria batzuetan, ingurune fisikoaren ahalmena eta lurraldearen uneko errealitatea bat datoz; beste batzuetan, berriz, artezpide bereziek, ekintza positiboko neurriek garatzeko oinarritzat izan beharko luketen kategoriak ezartzen dituzte. Neurri horiek une honetako erabilera egoera desiragarri batera (horiei buruz identifikatutako bokazioaren arabera) egokitzeko hartu behar dira. Hor kokatzen da, hain zuzen, Ingurumenaren Hobekuntza kategoria.

4.2.3.1 Definizioa eta sistematizazioa

LAAek aurreikusi eta aukera eman bezala (Ingurune Fisikoaren Artezpidearen 6.4. idatz-zatia; 8. Kapituluak), Itsasertza Babestu eta Antolatzeako LAPak, arautu beharreko lurraldearen ezaugarrien berezitasunaren arabera, batzuetan, antolamenduko azpikategoria gehigarriak erantsi ahal izango ditu, zona edo sektore bakoitzeko erabilera eta jardueren araudia bere harrera-ahalmen eta berezitasunekin bat etor dadin.

Horrela, Ingurune Fisikoaren Artezpidearen 6.5. idatz-zatian (8. kapituluak) adierazi bezala, antolatzeako kategoria eta azpikategoria bakoitzean erabilera eta jarduerako erregulazio espezifikoak ezartzen dute, LAAetan orokorrean erregulatutakoa eta LAP honen xede den lurralde-esparruaren ezaugarri partikularrak kontuan hartuta.

LAP honetako lurralde-esparruan ondorengo kategoria eta azpikategoria hauek definitu dituzte:

Babes Berezia (EP).

Itsasadar eta estuario, hondartza, duna, barrualdeko hezegune, kostaldeko itsaslabar, nabarmendutako edo landaretza bereziko eremu eta, orokorrean, balio natural garrantzitsuak –endemismo begetalak egotea, bertako abere-faunaren aberastasuna–, paisaiaren aldetik balio garrantzitsu, balio zientifiko, ahultasun handi, eta beste hainbat ezaugarri dituzten guneeetan aplikatuko dute kategoria hau.

Eremu hauetarako irizpide orokorra, gizakiak ahalik eta gutxien esku hartzea da eta aurreko egoerari eustea; aldiz, zonan aprobetxamendurik badago, asmoa da aprobetxamendua iraunkorra izan dadin, erabilitako baliabidea berrituko dela segurtatuz eta ingurunearen balioak zainduz. Erabilera eta jarduerak hobe arau ditzagun, oso heterogeneoak direnez, bi antolamendu-azpikategoria definitu ditugu:

- a) Babes Zorrotz Berezia (BZB). Kontserbatzeko balio handieneko Eremuak dira. Bertan, honako unitate hauek daude: 60 ° baino gehiagoko aldapa duten kostaldeko itsaslabarrak, urradurako plataformak, dunak, lehorreko itsasoaren uharteak, hondartza naturalak eta eremu bereziak. Eremu hauetan antolamendurako irizpide orokorra da ekosistemaren kontserbazioa, esku-hartze antropikoa mugatuz, bere ezaugarri morfodinamikoaren kontserbazio zorrotza eta bertako landaretzaren kontserbazio aktiboa sustatuz. Hondartzei dagokienean, antolatzeako irizpidea honako hau da: batez ere ingurunearen eta paisaiaren kalitatea mantentzea, bertako kalitatea mantentzea eta gordetzea edozer gauzaren gainetik jarritz, eta ingurunea eta paisaiaren narriaduragatik hondartzaren eta bere ingurunearen izaera naturala galtzea saihesten ahaleginduz.
- b) Babes Bateragarri Berezia (BBB). Bertan sartuko dira, ekologia eta/edo paisaiaren ikuspegitik balio handia izanda, balio horien kontserbazioa eta bertako oinarrizko baliabideen aprobetxamendua, abeltzaintza eta nekazaritzakoak batez ere, uztartu behar dituzten espazioak. Kategoria honen barne daude 60° baino malda txikiagoa duten kostaldeko itsaslabar-unitate guztiak. Arlo hauetan bertan antolatzeako irizpide gisa, esku-hartze antropikoaren muga hartzen da, aurreko egoera mantentzera mugatuz; eta, zona, aprobetxamenduarenpean badago, aprobetxamendu hau era iraunkorrean bultzatuko dute, erabilitako baliabidea berritzea eta ingurunearen balioak zaintzea ziurtatuz. Unitate hauek ekologia eta paisaiaren ikuspegitik duten balioak lehentasuna du bertako baliabideen aprobetxamenduan.

Babes Zorrotz Berezia izeneko kategorian sartutako hondartza naturalak, nagusiki itxura natural edo landatarra duten gutxi aldatutako ingurune batean kokatzen dira, paisaiaren ikuspegitik balio handikoak. Bertara heltzeko zailtasunak daude eta neurrian erabili behar dira. Horietako zenbaitetan, erriberaren erabilera algak biltzearekin bateragarri egiten da. Kategoria honetan sartuko lirateke honako hondartza hauek:

- | | |
|--|----------------------------------|
| · El Fraile (Hondarribia) | · Agiti (Donostia-San Sebastián) |
| · Manorranas (Hondarribia) | · Itsaspe (Orio) |
| · Moko (Hondarribia) | · Mollarri (Zarautz) |
| · Azabaratza (Pasaia) | · Ubiri (Zarautz/Getaria) |
| · Bursa (Pasaia) | · Orrua (Getaria) |
| · Senokozuloa (Pasaia) | · Aitzgorri (Zumaia) |
| · Murgita (Donostia-San Sebastián) | · Elorritxo (Deba) |
| · Mompás (Donostia-San Sebastián) | · Sakoneta (Deba) |
| · Tximistarri (Donostia-San Sebastián) | · Mendata (Deba) |
| · Amezli (Donostia-San Sebastián) | · Aitzuri (Deba) |
| · La Galea (Donostia-San Sebastián) | · Itsaspe (Deba) |

- Montare (Deba)
- Sieteplayas (Mutriku)
- Sagustan (Ondarroa/Mendexa)
- Endai (Mendexa)
- Egiluz (Mendexa)
- Ogeia (Ispaster)
- Bedarona (Ea)
- Lapatza (Ea)
- Ibiñaga (Ibarrangelu/Elantxobe)
- Antzora (Ibarrangelu)
- San Cristóbal (Busturia)
- Ondartzape (Mundaka)
- Aritzatxu (Bermeo)
- Arribolas (Bermeo)
- Landape (Bermeo)
- San Juan (Bermeo)
- Gaztelugatxe (Bakio)
- Andiño (Bakio)
- Armintza
- Arrizabate (Gorlitz)
- Astondo (Gorlitz)
- Ursendegi (Barrika)
- La Cantera (Barrika)
- Isertegi (Barrika)
- Barrika
- Meñakoz (Barrika/Sopelana)
- Azkorri (Getxo)

Ingurumenaren Hobekuntza (MA)

Hemen sartuko dira, balio handiagoko eremuen barne edo inguruan egoteagatik, kalitate handiagoa lor ditzaketen lurzoru marjinalak, baso narriatuak, eta sastraka-zonak.

Kategoria honetan, honako azpikategoriak bereizten dira:

a) Ekosistemak Hobetzeko Eremuak (MA1). Halakotzat hartzen dira ekologia, ingurumen edota paisaiaren aldetik balioa edukita ere, mota eta kategoria askotan, bertan, gizakiak aldaketak eragin dituenean, betiere atzera buelta izan dezaketenak. Kategoria honen barne daude, zaintzeko balio altua edo oso altua duten eremuak, adibidez, harizti azidofiloa eta leheneratzea gomendatzen duten narriadura-fasean dauden atlantikoko baso mistodun harizti-masak. Halaber, bertan sartuko dira, ingurumen-balio handiko sastraka eta zuhaixka-erako landarez osatutako sastraka kantabiarreko zonak. Zuhaixka-erako landareen zenbait zona, bertako basoaren narriadura-estadioei dagokie. Eremu hauetan, ekosistema funtzional interesgarriak berreskuratzera zuzendutako hainbat lan egingo dituzte. Hala ere, 92/43/CEE Arzteztarauaren barne interes komunitarioko habitat bezala katalogatu dituzten zenbait zonak ingurumenaren arloan balio handia dute. Horregatik, garatuko dituzten hobekuntza-jarduerak, haiek mantentzea baino ez dute bilatzen.

b) Berreskuratzeko Eremu Narriatuak (MA2). Halakotzat hartzen dira gizakiaren ekintzaz narriatutako eremuak izanik, aurreko antolamendu-kategoriakoak baino berreskuratzeko ahalmen eta ingurumen-balio gutxiago dutenak. Azpikategoria honen barne sartuko dira txilardi, otadi eta irasail atlantiarreko unitateak,

dragatzeetatik jasotako metaketak dituzten marearteko zonetako betetze-eremuak, hartxingadi-eremuak, eta Babes Bereziko zonen inguruan narriatutako eremuak, hau da, berreskuratu beharra eskatzen duten zonak. Irizpide nagusiak ingurumena berreskuratzea izan behar du, batez ere, kokatuta dauden zonaren ingurumen-balioa berreskuratzea bideratua. Tradizionalki ezarritako eta bere ingurumen-balio banaezina duten nekazaritza eta abeltzaintzako zereginei lotutako jardueretarako erabiltzen duten zonetan, antolatzeako irizpidea, jarduera horiek eta ingurumena berreskuratzeako helburuak uztartzea izango da.

Basoa (F)

Bertan sartuko dira, gaur egun duten erabileraetik eta/edo erabiltzeko joeragatik (aldapa, arriskuak, arroen babes, eta abar), baso gisa erabiltzeko joera argia duten lurrak. Higadura-agenteen edo irristatze-arriskuaren aurrean, basoak babesteko funtzioa duen eremu hauetan, baliabide hidrikoak erregulatzeko paperak, edo ekologia edo paisaiaren aldetik duen balioak, lehentasuna dute euren baliabideak aprobetxatzearen aurrean. Baliabide horien artean leudeke artadi kantabriarrak, hariztiak, ameztiak, haltzadi kantabiarra eta harkaitzetako landaredi-konplexuak. Zona hauek antolatzeako honako irizpide hau jarraitzen dute: erabilera eta aprobetxamendu tradizionalak mantentzea, basoaren babesteko funtzioa eta baliabideak gordetzen direla bermatzeko behar diren mugak ezarriz. Zenbaitetan, ekologia, babes, paisaia eta aisiarekin lotuta basoak duen funtzioa berreskuratzeako irizpidea erabiltzen dute, ekosistema funtzional interesgarriak berreskuratzea zuzendutako hainbat motatako lanetan oinarrituta berreskuratzeako lanak bultzatuz.

Bertan ere sartuko dira, nagusiki funtzio produktibitatearekin itsasertzean dauden produktuzko oihantzeak, baina paisaiari eta aisiari garrantzi handia emanez. Zona hauek antolatzeako honako irizpide hau jarraitzen dute: baso-erabilera modu antolatuan eta denbora mugagabeen erabiltzen bermatzea, masen produkzio iraunkorra ziurtatuz.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-zona eta landazabala (AG)

Kategoria honetan, ahalmen agrologiko handiko lurzoruak sartzen dira, adibidez, kantauri-eremukoko landazabaleko mosaikoak, baita abeltzaintzarako larre-lurzoruak ere; horiek dira, izan ere, itsasertzean gehien agertzen diren kategoriak. Antolatzeako, honako irizpide hau jarraitzen dute: nekazaritzako lurzoruak eta, hauekin bat etorruta, ekosistemak eta nekazaritzako paisaiak zaintzea ziurtatuko duten jardueren gaitasun agrologikoa mantentzea. Arreta berezia eman behar zaie balio agrologikoko lurzoruak okupatzen duten azpiegiturak ezartzeko eta eraikitzeako prozesuak kontrolatzeari, eta nekazaritzarako zonak zatitu eta isolatzen duten prozesuei, bertan burutzen dituzten jardueretarako ondorio negatiboak badituzte.

Kategoria honen barne ere sartuko dituzte aldatutako edo gizatiartutako zonak (laborantzak baztertuz), adibidez, ingurumen-balio txikiko eremutan dauden komunikazio-bide nagusiak, harrobiak eta meatzeak, zabortegeak, lugorriak, eraikuntzen edo betetze-lanen ondorioz euren izaera galdu duten nekazaritzako lurrak, eta abar. Eremu hauek

antolatzeako irizpide orokorra honako hau da: lur horietan, bigarren eta hirugarren sektoreetako garapen-jarduerak burutzea.

Erabilera bereziko zonak. Hiri-hondartzak (UE)

Kategoria honen barne sartuko dira, ingurumen-balio handia izan arren, aisiarako asko erabiltzen diren eremuak, argi finkatuak eta bere ordenamendua zehazki mugatzen dutenak. Baldintza horiek betetzen dituzte “hirietako” hondartzak (dagokion atalean aipatutako “hondartza naturalak” salbuetsita). Hirietako hondartzak, hirigune edo turismo eta aisiarako guneen inguruan daude; horrenbestez, ingurunea oso aldatua dago. Jende ugari hurbiltzen da, eta erraz heltzen da bertara. Gainera bertan, oinarritzko zerbitzuak, ostalaritzako zerbitzuak, aldagelak edo eguzki-oihalak, argia, aparkalekuak, itsasertzeako pasealekuak, eta abar aurkituko ditugu.

Aisiarako espazio bezala finkatuak, hondartza hauen antolamendua, paisaiaren inguruko irizpideekin planteatu behar da, ingurunearen hobekuntza bultzatu behar da bertan eskainiko dituzten zerbitzuekin uztartuz, eta beti ere itsasoko eta lehorreko jabari publikoa eta inguruko lurak babestu eta zainduz. Horretarako, lurren osotasuna eta zertarako erabiliko dituzten babestuz, euren ezaugarri eta elementu naturalak babestuz, eta obrak eta instalazioak egiteak izan ditzaketen ondorio kaltegarriak murriztuz.

Kategoria honen barne sartutako hondartzak, Kostaldeen araudian aurreikusitako erabilera guztiak onartuko dituzte. Erabilera horien barne, Babes Bereziko hondartzetan aurreikusitakoez gain, obra edo instalazio finkoen ondorioz itsasoko eta lehorreko jabari publikoaren okupazioari buruzko **emateko** helburu direnak sartuko dira. Orokorrean, hondartza hauetan, itsasora heltzeko bideak, eta itsasoko eta lehorreko jabari publikoko zonatik kanpoko aparkalekuak aurreikusi beharko dituzte.

Denboraldiko zerbitzuak, bainulekuen segurtasuna eta erabiltzeko beste hainbat baldintzen gaineko eskaerei erantzuteko garaian, eta birsortzeko obren proiektuetan lehenetasuna izan behar dute hondartza hauek.

Honako hondartza hauek sartuko dira kategoria honetan:

- Hondarribia
- Zurriola (Donostia-San Sebastián)
- Kontxa (Donostia-San Sebastián)
- Ondarreta (Donostia-San Sebastián)
- Santa Klara (Donostia-San Sebastián)
- Antilla (Orio)
- Oribarzar (Orio)
- Zarautz
- Malkorbe (Getaria)
- Gaztetape (Getaria)
- Santiago (Zumaia)
- Itzurun (Zumaia)
- Deba, Santiago o Lapari
- Ondarbeltz (Mutriku)
- Mutriku
- Saturraran (Mutriku)
- Arrigorri (Ondarroa)
- Karraspio (Mendexa)
- Isuntza (Lekeitio)
- Ea
- Laga (Ibarrangelu)
- Laida (Ibarrangelu)
- Kanala (Sukarrieta)
- San Antonio (Sukarrieta)

· Toña (Sukarrieta)	· Las Arenas (Getxo)
· Laidatxu (Mundaka)	· La Arena (Abanto-Zierbena/Muskiz)
· Bakio	· Kondemasti (Pasaia)
· Gorlitz/Plentzia	· Inpernupe (Zumaia)
· Atxabiribil/Arrietara (Sopelana)	· Ondarbeltz (Mutriku)
· Solandotes, Bariñatxe edo Salvaje (Sopelana/Getxo)	· Basordas (Lemoiz)
· Arrigunaga (Getxo)	· La Bola eta Las Arenas (Getxo)
· Ereaga (Getxo)	

4.2.3.2 Antolamendurako Kategoriak esleitzeko irizpideak

LAParen aplikazioko lurralde-esparruan antolamendu-kategoriak eta -azpikategoriak esleitzeko (betiere definitutako baldintzekin), bi irizpide erabakigarri baliatu ditugu: lurren erabilera-bokazioa eta kontserbaziorako balioa.

Irizpide horiek Eusko Jaurlaritzak prestatutako 1:25.000 eskalako gaikako kartografietan (geomorfologia eta landarediari buruzkoetan) bildutako informazioa oinarri hartuta aplikatu ditugu. Erabili ditugu, halaber, itsasertzekeo zerrendaren xehetasuneko kartografia geomorfologikoa eta kontserbaziorako balioaren unitate homogeenetatik ateratako 1:25.000ko mapa, biak ere LAP honen informazio- eta diagnostiko-fasean prestatutakoak.

Antolamendu-kategoriak LAParen aztergaiko lurralde-esparru osorako esleitu ditugu, eta emaitza esparru horretarako 1: 10.000 eskalako antolamendu-mapa izan da.

Aipatutako irizpideen arabera lurralde-unitateen antolamendu-kategorien esleipena gorabehera, tratamendu espezifiko kasu batzuk dira nabarmentzekoak:

- Jaizkibel mendiaren itsasoko isurialdea: kontserbaziorako oso balio handiko zona da, paisaia aldetik duen interesagatik, besteak beste; hala ere, landaredi-estalduran aldarte garrantzitsuak dituela-eta (abeltzaintzan erabilitako txilardi- eta otadi-lurrak, maiz suteek hartutakoak), berreskuratu beharreko unitatea da ingurumen-balioari dagokionez, Berreskuratzeko Eremu Narriatuen MA2 kategorian sartu beharrekoa.
- Eremu berezietan kokatutako hiri inguruko parkeak, adibidez, Getariako Sagua, Santa Klara Uharte eta Urgull Mendia. Eremu horiek, euren kokapenagatik, Babes Bereziako Kategoriak izango lirateke, baina horien erabilera publikoak (nabarmen sendotuta eta bere antolamendutik bereizi ezin dena) nekazaritza- eta abeltzaintza-kategorian sailkatzea bultzatzen du bihurtzen du.

Oro har, kontserbaziorako balio handieneko unitateen multzoa (5) Babes Bereziko edo Ekosistemen Hobekuntzako motetan dago txertatuta, eta kontserbaziorako 4 balioko unitateak Ingurumen Hobekuntzako kategoria bati dagozkie.

Antolamendu-kategoriak esleitzeko ezarritako irizpideak ondorengo koadroan agertzen dira:

ANTOLAMENDU KATEGORIAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.				
KATEGORIA	AZPIKATEGORIA	IRIZPIDEAK		
		Kontserbazio rako balioa	Unitate kartografikoa	IZENDAPENA
BABES BEREZIA (EP)	Babes zorrotz berezia (EPE)	5	Geomorf. 1:10.000 " " " " " Landaredia 1:10.000 " " " " "	60°ko malda baino gehiago duten itsaslabarrak Dunak Uhartek Abrasio-plataformak Harri koskorreko hondartzak Mareaz gaineko lohitsuak Mareartekoa Larreak-ihitokiak-zingirak / Uholde joerako sakonuneak Itsasertzeko labarren landaredi-komplexua Kostaldeko hareatzetako landaredia Paduretako landaredia Zohikaztegiak eta zohikatzeko txilardiak Lezkadiak eta karize handiko eraketak Ur-landaredia
	Babes bateragarri berezia (EPC)	5	Landaredia 1:10.000	60°ko malda baino gutxiago duten itsaslabarrak
INGURUMENAR EN HOBEKUNTZA (MA)	Ekosistemak hobetzeko eremuak (MA1)	4	Landaredia 1:10.000 "	Baso autoktono narriatua: harizti azidofiloa eta baso misto narriatua Kantauriko sastrakadiak: txilardiarre atlantikoa, gurbizti edo sastraka garai termo-atlantikoa, txilardi garai menditar, elordi edo lahardia
	Berreskuratzeko eremu narriatua (MA2)	4	Landaredia 1:10.000 Geomorf. 1:10.000 " Landaredia 1:10.000	Ote eta irasaileko txilardia Estuario-zonetako betegune heterogeneoak Marearteko zonetako harea-beteguneak Hartxingadi edo harrizako landaredia
BASOA (F)		5	Landaredia 1:10.000 " " " " " " " " " " " " " " "	Aleppo pinuaren pinudia Itsas pinuaren pinudia Artadi kantabriarra Ezkamezti / harizti kaltzikola Amezti edo tokornala Harizti azidofilo edo baso mistoa Gailurreko baso mistoa eta haitzebakien oineko landaredia urkidia Pagadi kaltzikola edo eutrofikoa Pagadi azidofiloa Haltzadi kantabriarra Sahastia Kareharrizko harkaiztegi-tako landaredi konplexua Harkaiztegi silizeoetako landaredi konplexua
		<4	Landaredia 1:10.000	Basoetako landaketak
NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA, ETA LANDAZABALA (AG)		<4	Landaredia 1:10.000 "	Belardi eta labore-lur atlantikoak Larreak: laiotz silizeoetako belartza garaiak (belardi menditarra, <i>Brachypodium</i> aren albitz-belardia eta beste hainbat larre mesofilo, <i>Agrostis curtisi</i> aren larre silizikola), larre kaltzikola harritarra.
		4	Landaredia 1:10.000	Hiriko parkeak eta lorategiak
		<4	Geomorf. 1:10.000 " " Landaredia 1:10.000	Dunak eraikuntzekin Eraikuntzen zonak betegarrien gainean Ekipamenduen zonak betegarrien gainean Landaredi erruderal nitrofiloa
ERABILERA BEREZIA. Hiri-hondartzak (UE)		5	Geomorf. 1:10.000 " " "	Hondar zementatuko hondartza Marearteko hondarrezko hondartza Mareaz gaineko hondarrezko hondartza Mareaz gaineko hondarrezko zona

LAP hau izapidetzeko garaian, 1:10.000 eskalan egindako landarediaren kartografia berria osatu dute. Kartografia hori oraindik balidazio-fasean dagoen arren, LAP honen testu bategina idazteko azken fasean behin-behineko egiaztatzea egin dute. Bertan, babesteko antolamenduko kategoria bezala esleitutako eremu guztiak banan-banan frogatu dituzte.

Mugak, landarediaren arabera definitu dituzten eremuen kasuetan, muga horiek landaredia-mapa berriaren mugetara egokitu dira eta aldaketak izan diren tokietan antolamendu-kategoriak esleitu dituzte berriz, goian adierazitako taulan jasotako irizpideak jarraituta.

4.2.4 Gainjarritako baldintzatzaileak

Honako kategoria hauetan sartutako azalerak, haiek definitzen dituzten eragileen mende daude. Eragile horiek, aurreko mailen gainetik dihardute, eta kasu bakoitzean sortutako arrisku-motaren arabera jarduera zehatzek bertan izan dezaketen eragina mugatzen dute.

Orokorrean, ondoren aipatuko ditugun hiru eragileentzat, garapen-plangintzak, haiek eragindako eremuak mugatuko ditu, eta lurzoruen egonkortasuna eta kontserbazioa, lurpeko uren kalitatea, uholdeen kontrola edo itsasertzerako LAP honek ezarritako helburuak betetzea kaltetu ditzakeen edozein jarduerari lizentzia emateko exijitu behar diren irizpideak eta baldintzak ezarriko ditu.

Horrek guztiak, itsasertzaren dinamika, arrisku naturalen kontrol eta babestu nahi dituzten baliabideen kalitatearen zaintzan jarduera horrek ondorio negatiborik ez duela ziurtatzeko nahikoa berme tekniko izateko helburua du. Gainjarritako eragile bakoitzari dagozkion erregulazioetan honako irizpide orokor hauek ezartzen dituzte:

Akuiferoak kutsatzeko eremu zaurigarriak. *EAEko kutsatzeko arriskua duten akuiferoen maparen irizpideen arabera, baliabide hauek kutsatzeko arrisku handia duten lurpeko akuiferoak berriz kargatzeko eremuei dagozkie (maila altuak eta oso altuak). Irizpide orokor bezala, eremu hauetan, lurzoruak kutsa dezaketen jarduerak aurkitzea saihestu nahi dute. Ezinbesteko arrazoiengatik honelako jarduera-motak ezarri behar direnean, lurpeko urak ez kaltetzeko bermea exijituko dute.*

Eremu higagarriak edo higatzeko arriskua dutenak. *EAEko Mapa Geomorfologiko Sintetikoaren arabera, ezaugarri litologiko eta erliebearekin lotutakoengatik, higadura-fenomenoak emateko aukera handiko eremuak dira. Orokorrean, zuhaitz-eremuak mantenduko dituzte, eta lurzoruak hutsak dauden*

tokitan sortu eta zabaldu egingo dituzte, higaduraren inguruko fenomenoetatik babesteko.

Urpetu ditzaketen eremuak. Kokapena, erliebe eta ezaugarri topografikoengatik, uholde maximo arruntetan urek gainezka egiteko benetako arriskua duten zonak dira, *Uholdeen Prebentziorako Plan Integralak* ezarritako birgertatze-aldien arabera. Irizpide orokor bezala, ibilguak eta gainezka-bide-zonak itxi eta etetea saihestuz, uraren zirkulazio librea bermatu behar da, bai eta gainezka egindako urek instalazio, azpiegitura eta eraikuntzetan eragin ditzaketen kalteak prebenitu ere.

Plan honetan ez dituzte, Baldintzatzaile Gainjarriek kaltetutako eremu hauek grafiatzen, bere definizioa, aipatutako lan espezifikora mugatuz.

4.2.5 Lurreko kostaldeko ertzetan erabilerak eta jarduerak erregulatzea

Lehorreko inguruneke kostalde-ertzen erabilerak eta jarduerak era askotako antolamendu-kategorietan definitutako erabilerak eta jarduerak aztertu ondoren arautzen dira, eta horiek ondorengo mota batean sartzea erabaki dezakegu:

- a) Bultzatutako erabilerak. Antolamendu-kategorian, bilatutako helburuak lortzeko eragin ona duten erabilerak eta jarduerak dira, baita eragina txarrik ez dutenak ere.
- b) Onartzeko moduko erabilerak. Itsasertza babesteko ondorio eskasa dute.
- c) Debekatutako erabilerak. Bultzatutakoen edo onartzeko modukoetan ez sartutako erabilerak edo jarduerak dira, ezarritako kategoriaren antolamendu-printzipioetan edo itsasertza zaintzarako eragin txarra izateagatik.
- d) Tokiz kanpoko erabilerak. Halakotzat jotzen dira erabileraren izaera dela-eta antolamendu-kategoria jakin batzuetan sartutako lurralde-zonetan finkatzeak oinarri izango ez luketenak.

Baimendutako edo onartzeko moduko erabileren barnean, aldi berean, hiru mota sartzen dira:

- a) Arloko araudiaren mendeko erabilerak
- b) Udal-plangintzak arautu beharreko onartzeko moduko erabilerak.
- c) Lizentzia espezifikoko prozedura, debeku edota gutxieneko neurriei lotutako onartzeko moduko erabilerak.

Erabilera edo jarduera bakoitzerako ezarritako araudi xehatuan eta antolamendu-kategoria bakoitzean zein erabilerari dagokion ezartzen dugu. Era horretan, era askotako erabilera eta jarduerak antolamendu-kategorietan dituzten mugak eta murrizketak argi eta labur ezartzen ditugu.

Araudi horretarako salbuespen bakarra da ez dela hori aplikatuko baldin eta azpiegitura handiak ezartzeko jarduerak eta Estatuaren edo Euskal Autonomia Erkidegoaren interes orokorrekotzat deklaraturako obrak badira eta, dagokion ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren arabera, Plan honetan xedatutakoarentzako arrazoizko alternatibarik ez badago.

Gainera, LAP honen aplikazio-esparru osoan, birgaitu ondorengo lehenagoko eraikinetan soilik egin daiteke hirugarren sektoreko erabilera-jarduerarik (hotelak, landa turismoa...) lurzoru urbanizaezinean, eta inplizituki eraikinen kanpoko itxura, estalki eta fatxadak mantendu behar dira.

Halaber, itsasoko eta lehorreko jabari publikoko babes-zonan abeltzaintza- eta nekazaritza-ustiapenari lotutako etxebizitza onartzeko moduko erabileratzat joko da soilik jarduera hori birgaitu ondorengo eraikinetan egiten bada eta inplizituki eraikinen kanpoko itxura, estalki eta fatxadak mantendu behar dira.

4.3 Itsasadarretako ertzen antolamendua lehorrean

4.3.1 Aldez aurreko oharra

Euskal Autonomia Erkidegoko itsasadarren erriberetan eta ibaien bokalen ondoko lurzoruetan arazo bat dago, beren ezaugarri fisiografikoen ondorioz, historian zehar zona hauek erabilera intentsiboa eta komunikazioak sortzeko nolabaiteko erraztasuna izan dute. Horrek guztiak, lur horietan hirigintza-hazkuntzako presioak eragin dituzten jarduera antropiko ugari ematea baldintzatu du, hainbat helbururekin (erregulazioa, antolamendua, babes, eta abar) lur horiek erregulatzeko neurri publikoak hartu behar izan baitituzte. LAP honen Aurrerapena bideratzen zerikusia duten administrazioei egindako kontsulten arabera, kostaldean, herriak sortu diren ibai eta erreken bokaleen inguruko lurren erabilerarekin lotutako arazoa antzeman dute. Bertako biztanleen hazkuntza, babes-zortasuna aplikatzeak baldintza dezake.

Hartu beharreko neurrien artean, adierazitako presioak murriztu edo kentzeko neurri prebentiboez eta errealitatea berreskuratzeko neurriez gain, babes-zortasunean Kostaldee buruzko Legeak ezarritako mugak murriztu daitezkeen planteak daitezke. Lege honek, Estatuaren itsasertz osorako murrizte generikoak ezartzen ditu, eta antza denez ez ditu kontuan izan Kantauriko itsasertzeko ibaiadarren ezaugarri bereziak, batez ere, hiriguneak –zenbaitetan historikoak ere– inguratzen dituzten han sortutako besoek. Jabari publiko estentsiboa mugatzean oinarritutako babes-zortasunak zorrotz aplikatuz, gune horien inguruan edozein garapen eragotzi dezakete, baita hazkuntza begetatibo soil bati dagozkionak ere.

Honen inguruan aipatu, Eusko Jaurlaritzak eskatuta, Ángel Menéndez Rexach irakasleak, “Estudio Jurídico sobre la aplicación de la servidumbre de protección establecida en la legislación de costas a las rías y las desembocaduras de los ríos” izenarekin egindako txostenean adierazitakoa. Oso interesgarria denez, bere laburpen exekutiboa hitzez hitz bildu dugu:

1. Babes-zortasuna, ibaien aldeetan, mareek eragiten duten tokiraino aplikatu behar dela adierazteak, ez du esan nahi, ur-korrante natural guztiak bere eraginpean daudela, guztiak ez baitira “ibaiak” bezala sailkatuko. Alderdi hau oso garrantzitsua da arazo honetan. Arazoa bera ez litzateke amaitu beharko kostaldeei buruzko legean, edozein ur-korranterako “ibaia” hitza onartuz. “Gaiak, gutxienez, gogoeta bat merezi du; izan ere hasieran ez dirudi zentzu handirik duenik erreka, ubide eta beste hainbat isurketa txiki “ibaia” bezala sailkatzeak, lengoia arruntean eta legean ingurukoan ez baitira aipatutako lehen izendapenaren barne sartzen”.

2. Era berean, “itsasertzak” hitzaren esanahia, hemen interesatzen zaigun legearen ikuspegitik ere ez da oso argia. Horietako asko “itsas-portu” bezala ulertzen dituzte. Egiaztatu ahal izan dugun bezala, arrazoi horrengatik, aipatutako espazioak XIX. mendeko legeetan itsasoko eta lehorreko zonan sartu zituzten. Gainera, lege horiek inoiz ez litzukete erreka eta beste hainbat ibilgu txikitan aplikatuko. Horrenbestez, “portu” bezala hartzen badituzte, instalazio hauei aplikatuko zaien legeriaren mende izango dira.

3. Horrenbestez, gai honen azterketa Kostaldeeii buruzko indarreko legeriaren barne justifikatzen da eta ez dute aldatzeko aukera saihesten, indarreko erregimena zorrotz aplikatuz gero nahi ez ditugun ondorioak sor baditzake. Horrek, noski, ez du babes-zortasuna zalantzan jartzen, ez eta berau justifikatzen duten helburuetarako eraginkortasuna kaltetzen ere. Horrengatik, lehendabizi, indarreko erregulazioa eta honen ondorio praktikoak zehatz-mehatz aztertu behar dira. Arau horiek, planteatutako arazoak konpontzeko aukera emango ez balute bakarrik pentsatu beharko litzateke bere behin-behineko aldatketan.

4. Historian zehar legerian, itsasadarrak eta ibai-ahoak itsasoko jabari publikoan sartzea hasieran justifikatu zuten (1866ko Urei buruzko Legean) itsas-portu bezala sailkatu zituztelako; hori horrela izateko erabakigarria izan zen nabigagarritasun-irizpidea. Beranduago (1880ko Portuei buruzko Legetik aurrera), eta sailkapen hori galdu gabe, bere gainetik itsasoko eta lehorreko zonarena ezarri zuten, mareen sentibilitatearen irizpidea aplikatuta. Hori guztia kontuan hartuta, nabigatu ezin ziren baina mareek eragiten zuten hainbat gune, “itsas-portu” bezala sailka zitezkeen, adibidez, padurak. Mareen sentibilitatearen irizpide hau aplikatzea erabakigarria izan zen itsasoko eta lehorreko zona handitzeko (1866an “hondartza” deitzen zutenaren izen berria). Gune hau dagoeneko ez zen lurraldearen kostaldera mugatzen, hemendik aurrera itsasadar eta ibai-ahoetatik, zegokion mugaketan adierazi behar zuten mugaraino zabaltzen zen. Orduan erriberak “ibai” izatera pasatzen ziren, itsasoko eta lehorreko zona bezalako izaera galduz.

5. Hala ere, itsas-portuen esparruan (ezin da ahaztu itsasadarrak eta ibai-ahoak horrela sailkatzen zirela), itsasoko eta lehorreko zona, proiektua jada onartua zuten obrek eraginda mugatzen zutenean, portuaren zerbitzu-zonako zatia zen.

6. Itsasoko eta lehorreko zonarekin mugatzen duten jabetza partikularreko lurrak (eta bertan daudenak ere, 1880ko Portuei buruzko Legearen arabera), itsasertzeko zaintza eta salbamenduko zortasunen mende zeuden. Jabetza partikularreko “enklabeen”

kasuak kontuan hartu gabe, zortasun horien zabalera, itsasoko eta lehorreko zonaren barruko mugatik neurtzen zen eta, beraz, zona honi "lotzen" zitzaien, 1966ko Uren gaineko Legeak adierazten zuen bezala. Horregatik, hasieran zortasunak, itsasoko eta lehorreko zona osoan ezartzen ziren. Beren erregimenari zegokionean ez zuten berezitasunik ezartzen ibaien ertzetan, hala ere bistakoa da erregulazio guztia "kostalderako" edo "itsas-mugarako" pentsatua dagoela, eta ez mareek eragiten zuten ibaien azken zatietarako. Horren inguruan, indarreko zortasunaren erregulazioa paradigmaticoa da. Salbamendukoak berriz, badu ere zentzurik ibai-ahoetan, baina zati nabigagarrietan bakarrik; izan ere, nabigagarriak ez badira, ez dute salbamenduaren arazoa planteatuko.

7. Gaur egun arte indarrean izan den erregulazio honetan guztian (zehazki, 1988ko Kostaldeei buruzko Legea eta 1992ko Estatuko eta Merkataritza Nabigazioko Legea atara arte), zenbaitetan "itsasadarrak" hitza erabiltzen da (1866ko Legea) eta batez ere "ibaiertzak", mareen eraginaren irizpidea adieraztea baino zehaztasun gehiago egin gabe. Indarrean den kostaldeei buruzko 1988ko Legeak terminologia pixka bat aldatu du. Legeak, itsasoko eta lehorreko jabari publikoaren barne sartzen du itsasoko eta itsasadarretako erribera, eta izen honen barne, itsasoko eta lehorreko eta hondartzetako zonak (3.1. art.). Lehendabizikoa, "ibaiertzetatik, mareek eragiten duten tokiraino ere luzatzen da". "Ibai-ahoak" hitza erabiltzen ez bada ere, aldaketa terminologikoa da, besterik gabe, funtsezko elementuan eragiten ez duelako: ibaien azken zatietan itsasoko eta lehorreko zona egotea. Honen mugak, mareen eragina kontuan hartuta zehaztu behar dira (eta mugaketan jaso), 1880 eta 1928ko portuei buruzko legeria indarrean zegoenean gertatzen zen bezala.

8. KLren interpretazio gramatikalak, gainera, honako tesi hau babesten du: ibaien azken zati horiek, legearen arabera, eta edozein ezaugarri dituztela ere, "itsasadarrak" dira mareek bertan eragiten dutelako. Ikuspegi honetatik, KLk dualismo tradizionalaren "murriztea" eragingo zuen ("itsasadarrak eta ibai-ahoak"), biak "itsasadarra" kontzeptuan sartuz. Dena den, xehetasun terminologiko hauek alde batera utzita, garrantzitsuena, ondorio honetarako "itsasadarren erribera" eta "ibaiertzak" bezala zer ulertzen den erabakitzea da, hau da, mareak eragina duen edozein ibilguri buruz edo ibai bezala sailkatuko liratekeen garrantzitsuenei buruz bakarrik ari den erabaki behar da.

9. Indarreko legerian, itsasadar eta ibaiertzetan, itsasoko eta lehorreko zona, mareek eragiten duten tokiraino heltzea, honako irizpide hauen arabera interpretatu behar da:

1. 1866ko Urei buruzko Legearen 20. artikuluan "ibaien ahoak" espresioarekin ez ziren barne hartzen ibilgu guztiak, nabiga zitezkeen ibaiak bakarrik; izan ere, nabigagarritasunaren datu hori kontuan hartuta, "itsas-portu" bezala sailkatzen zituzten. Portuei buruzko 1880ko Legean, irizpide horren gainetik, mareen eraginarena ezarri zuten, eta horrek gaur egun arte hala irauten du.

2. "Itsasadarrak" itsasoak dira, bertako urek okupatutako espazio batean sortzen direlako, eta bertako erriberak itsasoko eta lehorreko zonako zati dira, marea bizienak gainditzen dituztenean, olatu handienak noraino heltzen diren kontuan hartuta mugatzen direlako ("hondartzak" ere barne har ditzaketela kaltetu gabe), KLaren 3. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.

3. Estatuko eta autonomia erkidegoetako portuen zerbitzu-zonan sartutako itsasadar-zatietan, orokorrean, ezin da kostaldeei buruzko legerian ezarritako jabetza mugatzeko erregimena aplikatu, dagokien portuei buruzko legeriak hala exijitzen ez badu. Horrenbestez, estatuko edo autonomia erkidegoetako

portuetako zerbitzu-zona osatuko duten itsasadarretan ezin da Kostaldeei buruzko legeria babesteko zortasuna aplikatu. Tesi horrek du, gure ustez, oinarri sendoena; hala ere horrekin ados ez egon arren, praktikan arazoa ez dute kasu gehienetan planteatuko, zortasun-zona, osorik edo zati bat, dagokion portuaren zerbitzu-zonaren mugen barne geratuko baita.

4. Ibilguen azken zatietan agregakinak erauzteko erregulazioan hitz hau zuzen erabiltzen bada, 3.1 .a) artikuluan ibaiena erabiltzen denean, bere zentzu literalean ulertu behar da ere, eta ez edozein ibilguri buruz hitz egiteko.

10. Ondorioz, babes-zortasuna itsasadarren erriberetan eta portu baten (estatukoa edo autonomikoa) zerbitzu-zonaren barne egongo ez diren ibaien azken zatietan aplikatuko da. Ez dute, alabaina, ibai bezala sailkatu ez dituzten beste hainbat ibilguren, edo portuaren zerbitzu-zonaren barne egongo diren itsasadar eta ibaien erriberetan aplikatuko.

11. "De lega lata", ibaiertzetan babes-zortasuna mareek eragiten duten tokiraino aplikatu daitekeen arren, ezin ukatu esparru horretan eta itsasoaren aurrean, hots, itsasoaren erriberan desberdinak direla. "Eraikinak pantailan egiteagatik agregakinen garraio eolikoa etetea eta ikusmeneko perspektibak ixtea, eraikinek itsasoaren erriberan egiten duten itzala, kontrolik gabeko isurketa eta, orokorrean, eraikuntzaren, eta honek ingurune naturalean eragiten dituen erabilera eta jardueren eragin negatiboak" egindako kalteak saihesteko egin du legegileak bere proposamena, KLaren Arrazoiak Azaltzeko hitzekin esateko.

12. Arazoa da KLak ez duela bereizten, ez eta Araudiak ere, itsasoko eta lehorreko urbanizazioen kasurako ez bada. Egia da arau-multzo honetan, zortasuna aplikatzeko, modulazio garrantzitsuak ezartzen dituztela, gehienez beste ehun metro luzatzeko aukera aurreikusiz, bai eta murrizteko aukera ere, Legearen Hirugarren Aldi Baterako Xedapenean, eta bere garapena Araudiaren Zortzigarren eta Bederatzigarren Aldi Baterako xedapenetan. Baina handitzeko edo murrizteko irizpideei dagokienean diferentzia garrantzitsua dago. Lehena aukerakoa da eta "dagokion kostalde-zatiaren ezaugarriak kontuan hartuta, zortasunaren eraginkortasuna ziurtatzeko behar denean" (KL 23.2. art. eta KE 43.2. art.) justifikatuko da. Murriztea, berriz, arautua da eta lurzorua hirigintzako sailkapenean oinarritzen da, eta hirigintzako eskubideak kenteagatik kalte-ordainak ez eragiteko helburua du, baina ez bere mende jarritako ibaien azken zatien ezaugarri fisiko edo morfologikoetan. Horrenbestez, zortasunaren zabalera hogeit metrora murriztu daiteke bakarrik, KL indarrean sartu zen datan hiri-lurzorua zela frogatu daitekeenean.

13. KLaren 22.1. artikulua arabera, kostaldeko zati jakinak babesteko arauak onartuz, ibaiertzak babesteko zonaren erregimena malgutzeko aukera azter daiteke. Arau horiek Estatuak onartzen dituzenez (gaur egun MIMAM den ministerioaren Agindua: KR 42.4. art.), bide honen bidez sartutako hainbat kasutan zortasuna aplikatzeko malgutasuna, Estatuaren erregulazio "minimoaren" zati izango litzateke, eta lege autonomikoekin bat egiteko ikuspegitik ez legoke arazorik. Beste ikuspegi batetik etorriko litzateke arazoa: arau-hierarkiaren printzipioa errespetatzea, izan ere, kasu jakinetan babes-zona murriztea "garapen" bat dela ez dago argi, eta are gutxiago KLaren 22.1. artikuluan aurreikusi ez dituzten alderditan eragin dezaketela. Hasieran, erantzunak ezezkoa izan behar duela dirudi.

14. Babes-zortasuna murrizteko indarrean den kostaldee buruzko legeriak laguntza argi bakarra eskaintzen du, hots, KL 25.1. artikuluan orokorrean ezarritako debekuen dispensa-aukera. Artikulu honetako 3. idatz-zatiak Ministroen Kontseiluari, "salbuespen

bezala eta behar bezala egiaztatutako erabilgarritasun publikoko arrazoiengatik” aipatzen dituzten jarduera eta instalazioak baimentzeko ahalmena ematen dio. Jarduera eta instalazio horien artean, egoitza edo logela gisa erabiltzeko eraikinak, eta beste leku bat izan dezaketen industria-instalazioak, “baldin eta bi kasuetan, hondartzak, hezeguneak edo babes berezia behar duten tokiak ez diren kostaldeko zatiak badira”. Dena den, bertarako baimenduko dituzten jarduerak, Administrazio eskudunek onartuko duten hirigintza-plangintzara egokitu beharko dira. Zalantzarik gabe hori da arazo hau konpontzeko bide bat, agian egokiena ez bada ere; izan ere, ez ditu ibaien azken zatien ezaugarriak kontuan hartzen. Horregatik, beste hainbat aukera aztertu beharko dira, horretarako politika legegilearen arloan sartu behar badugu ere.

15. Babes-zortasunaren erregulazioa lurzorua sailkapenari lotua dagoela kontuan hartuta, murrizteko planteamenduak, urbanizagarri bezala sailka daitezkeen edo KL indarrean sartu ondoren hiritar izaera hartu duten lurzoruetan planteatzeak bakarrik izango du zentzua. Horrenbestez, ez da bidezkoa izango, indarreko legeriaren arabera, urbanizaezin bezala sailkatu behar diren lurzoruetan. Horien artean, gutxienez honako hauek egongo lirateke:

a) Sektoreko legeriak, babesteko erregimen berezia ezarri dizkien lur guztiak (normalean, natura babestekoa).

b) Lurralde-plangintzaren ondoriozko babesa duten lurrak, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan, LAPetan eta garatzerakoan onartutako lurraldearen arloko edo zatiko planetan.

c) Dena den, aurreko idatz-zatien arabera, normalean babes-erregimen baten mende izango diren padurak saihestu beharko lirateke. Hala izango ez balitz ere, bere balio naturalak kontuan hartuta, hirigintzako plangintzak babestu beharko lituzke.

d) Halaber, edozein kasutan, itsasadarretan dauden hondartzak kanpoan utzi beharko lirateke. Hauei, babes-zortasuna osorik aplikatu behar zaie. Horren inguruan gogoratu behar da KL 25.3 artikulua arabera, bizitzeko eraikinak eta industria-instalazioak jartzeko debekuak, hondartzak, hezeguneak edo babes berezia behar duten tokiak ez diren kostaldeko zatiak zortasuna aplikatetik salbuesteko aukera ematen duela.

e) Hasieran, urei buruzko legeriaren arabera, urak har ditzakeen zonak baztertu egin behar dira, “sektoreko plangintzan egiaztatutako arrisku naturalek” eragindako lurrak direlako (LEBLaren 9. art.), baldin eta 500 urteko uholdea prebenitzeko beharrezko bideratze-obrak egitea aurreikusten ez badute. Kasu honetan ez legoke urak hartzeko arriskua zona honetan.

16. Ibaien azken zatietan babes-zortasuna aplikatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren antzeko arazoak dituzten Komunitateetan arazoa ez dute sakonean aztertu, zortasun hori, KLn ezarritako moduan aplika daitekeela segurutzat jotz, baina Lege honek eragindako zalantzak argitu gabe. Ikuspegi orokorrago batetik, itsasertza babesa sendotzeko joera argia da, KLn ezarritako “minimoen” gainetik. Baina sendotze hori, zenbait kasutan malguago egiten da, KLaren 25.3. artikuluan erregulatutakoaren antzeko mekanismoaren bidez, autonomia-erkidegoko gobernuak baimendu ditzakeen salbuespenen aurreikuspenekin. Laburtuz, indarreko araudiaren alderdi azpimarragarrienak honako hauek dira:

- *Itsasertz ondoko zerrenda Lurzoru Urbanizaezin edo landatar bezala sailkatzea, zabalera aldakorarekin (Asturias, 500 metro; Galizia, 200)*
- *Itsasorantz doazen nukleoak hazten debekatzea, salbuespen gisa lekatu badaiteke ere, bai eta, distantzia jakinetaraino, bertan dauden hiri-lurzorutan oinarritutako hazkuntza eman ere (Asturias, Kantabria)*
- *KLaren babes-zona 200 metrora handitzea edo, zabalera bera izango duen babes espezifiko beste zona bat ezartzea, 20 metrora murrizten den landaguneetan (Galizia) eta hiri-lurzoruan izan ezik.*
- *Babes-zona zabaldu hori, itsasadar eta ibaiertzetaraino heltzen da.*
- *Lurzoruaren erabilerak kontrolatzeko, eraginpeko eremua (500 m.), "interes autonomiko" bezala hartzen dute (Asturias, Galizia)*

17. Mareek eragiten duten tokiraino ibaiertzetan (aplikatu ezin den beste ibilgutan ez, adierazi dugun bezala) babes-zortasuneko zonaren zabalera murrizteko aukera planteatu daitekeen kasuetan, mugatu egin beharko lirateke honako irizpide hauen arabera:

- a) Sektoreko legeriaren edo lurralde-plangintzaren arabera, lurrak babes bereziko erregimenaren mende ez egotea.*
- b) Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legerian aurreikusitakoaren arabera, lurzoru urbanizaezin bezala sailkatu behar ez izatea.*
- c) Urek har ditzaketen zonak ez izatea, 500 urteko uholdeak prebenitzeko behar diren bideratze-obrak aurreikusten ez badituzte.*
- d) Herrian, behar bezala justifikatutako hazkuntza-premiak hartzeko nahikoak diren beste lurzoru urbanizagarririk ez egotea.*

Dagokion udalerrriak, baldintza hauek ematen direla egiaztatu beharko du eta Eusko Jaurlaritzak baimendu.

18. Kostaldee buruzko Araudian, ibaiertzetan babes-zortasuneko zona aplikatzeko zenbait zehaztasun sartzea, badirudi, jurisprudenzia konstituzionalak, Gobernuak arauen inguruan duen ahalmen honi aitortutako argitzeko eta osatzeko aukeren barne sartzen dela. Horrenbestez hori, proposatutako aldaketa antolatze, erraz onar daitekeen aukera izango litzateke.

19. Lurralde eta hirigintzako antolamenduan duten eskuduntzaren arabera, autonomia-erkidegoek, plangintzaren bidez eta, orokorrean, hirigintzako teknikak erabiliz, lurzoruaren erabileran mugak jar ditzakete. Hala ere, lurraldearen antolamenduari buruz autonomia-erkidegoen eskuduntza kostaldee buruzko legeriak baldintza dezake, gorago adierazitako zehaztapenetan ingurumena babesteko oinarritzko legeriari dagokionean. Ez da erraza estatuaren eta autonomia-erkidegoen eskuduntzen arteko mugak ezartzea, baina, indarrean den kostaldee buruzko legeriaren arabera, esan daiteke lurraldearen antolamenduaren inguruan autonomia-erkidegoen legeriak (edo ingurumena babesteko legeriak)

babes-zortasunaren erregulazioan xehetasunak sartzen baditu, estatuaren eskuduntzetan sartu dela egotzi dakiokela, izan ere, autonomia-erkidegoetako legeak, estatuko legerian jasotako babesteko "minimoak" murriztuko lituzke. Egia da, landa-nukleoetan zortasuna aplikatzerakoan Galiziako legerian badela aurrekari bat, baina egia da ere, erregulazio hori kostaldeei buruzko legeriaren arabera interpretatu behar dela, hemen esan dugun bezala.

20. Ondorioz, Ingurumen Ministerioari Kostaldeei buruzko Araudia aldatzeko proposatu beharko litzaioke eta 43. artikuluan 7. idatz-zatia eransteke eskatu. Bertan, honelako zerbait adierazi beharko litzateke:

"Dagokion Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak, salbuespen moduan, mareek eragiten duten punturaino ibaiertzen babes-zortasuneko zona murrizteko baimena eman dezake honako baldintza hauek betetzean:

a) Sektoreko legeriaren edo lurralde-plangintzaren arabera, lurrak babes bereziko erregimenaren mende ez egotea.

b) Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legerian aurreikusitakoaren arabera, lurzoru urbanizaezin bezala sailkatu behar ez izatea.

c) Urek har ditzaketen zonak ez izatea, 500 urteko uholdeak prebenitzeko behar diren bideratze-obrak aurreikusten ez badituzte.

d) Herrian, behar bezala justifikatutako hazkuntza-premiak hartzeko nahikoak diren beste lurzoru urbanizagarriak ez egotea.

Gobernu Kontseiluaren baimenak, kasu bakoitzean, urbanizazioaren eta eraikinen erretiratze-distantzia ezarriko du".

4.3.2 Itsasertza Babesteko ikuspegiak

Lurraldearen eta ingurumenaren ikuspuntutik, Menéndez Rexach irakaslearen txostenean planteatutako gaia garrantzitsua da. Urei eta Kostaldeei buruzko legeriek ematen duten maila diferenteko babesa justifika daiteke, kostaldeko zonetan edo ur gezako ibilguetan aplikatzen dutenean. Trantsizioko zonetan aplikatzen direnean, ikuspegi administratibotik bi jabari publikoen artean muga zehaztu behar da. Aldi berean, ordea, jakin badakite muga hori, ingurumenaren ikuspegitik, pixkanakakoa eta zehaztugabea dela. Kostaldeei buruzko Legean, eta jada egin dituzten mugaketen izapide administratiboetan adierazitako irtenbide administratiboan, ingurumenaren ikuspegitik kasu gehienetan baliagarria izan daiteke, batez ere ibai handi samarren ahoetan. Hauek, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, balio handiko trantsizioko inguruneak sortzen dituztenez, modu horretan babesa ziurtatu egiten da.

Hala ere, askotan, estuarioetara bertara, oso ubide murriztuak ematen dituzten ibilgu txikiak isurtzen dira, estuarioen ohiko inguruneak garatu gabe, kanal nagusia izan ezik. Bertara, normala den bezala, marea sartzen dela kontuan hartuta, Kostaldeei buruzko

Legean xedatutakoa zehatz-mehatz aplikatuz gero, jabari publikoaren mugaketak ubide horietatik gora, oso barruraino helduko lirateke.

Askotan, itsasadarrek herritarrentzako duten erakargarritasunagatik, historian zehar, bertan egindako kokapenen banaketa kontuan hartuta, ubide horiek hirigune barruan daude, zenbait kanalizatu eta estaltzera heldu arte. Kasu horietan galdetu daiteke, Kostaldeein buruzko Legea aplikatuz ematen dena izan beharrian, ez ote den aproposagoa Urei buruzko Legearen ondoriozkoa, kontuan izanda bertan dauden baliabide naturalen babesari, urak hartzeko arriskuari eta lurraldeari lotutako irizpideak.

Dena den, lurralde baten gainean titulu diferentea duten eskuduntzen banaketa konstituzionala ondoan jartzen da; kasu horretan, bildutako administrazio bakoitzak espazio berbererako espazio-muga diferenteak ezartzen baditu, muga horiek, oinarritzko irudi beraren gainean, plano garden gisa, gainjarri egiten dira, eta murriztaileena hartuko da kontuan.

LAP honetan, Kostaldeein buruzko Legearen arabera bezala ez erregulatzea, ez da bakarrik arrazoizkoa, baita aproposa ere. Erregulatzearen helburu orokorra berbera den arren, oinarrian dagoen kostaldearen egoeraren errealitatearen analisia oso diferentea da. Kostaldeein buruzko Legean, minimo bezala sailkatutako Estatu osorako erregulazio generikoa egiten dute; LAP honetan berriz, lurraldea zehatz-mehatz aztertzen dute, itsasertzeko lurraldearen ezaugarri fisiko eta naturalistikoetan oinarrituta, eta antolamendu-maila bakoitzerako erregulazio espezifikoa egiten dute.

4.3.3 Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAParekin koordinazioa

Zenbait esparruk, LAAen Ingurune Fisikoaren Artezpideak berak emandako eta irizpide asko oso antzekoak izanik garatu dituzten erregulazio berberak dituzte. Hori gertatzen da, Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPak garatutako antolamenduan.

Horri lotuta ondoriozta daiteke, bi LAPen antolamendua aplikatzeko muga bat ezar daitekeela, Urei buruzko Legeak eta Kostaldeein buruzko Legeak egin duten bezala. Baina, uren, eta itsasoko eta lehorreko jabari publikoen arteko banaketak hainbat arazo ditu, zenbait kasutan hartutako irtenbideak administratiboak bakarrik dira, eta ez dute zerikusi handirik aplikatzen dituzten inguruneekin. Horri lotuta, gainera, bi legeriek lortzen dituzten babes-erregimenen arteko diferentziak handiak dira, eta horregatik, muga garbirik ez duen ibai/itsasadar interfasea bezalako trantsizioko ingurunea asko aldatzen da, aplikatu duten ingurunearen interpretazioen bidez ezarri duten puntu jakin baten azpiko eta gaineko uren zatien babes-erregimenean.

Bestalde, kontuan izan behar da, Plan hau eta Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPa, lurraldearen antolamendurako tresnak direla. Horregatik, berez, Urei eta Kostaldeein buruz aipatutako oinarritzko legerietako faktoreak baino gehiago izan behar dituzte kontuan.

Horren guztiarengatik, bi LAPetako araudiak bateragarri egitea erabaki dute, bakoitzaren helburu bereziak kontuan hartuta, batez ere, ibaiertzetan dauden balio ekologiko handiena duten zonei dagokienean.

Beraz, itsasadarren ertz horietan honako hau hartu dute kontuan: Autonomia Erkidegoko ibilgu guztiak osotasunean hartzen dutela, eta hiri-lurzoruetan eta lurzoru urbanizagarrietan ezarritako erregulazioa, eta Hirigintzako Hazkuntzen erregulazioa ikusita, ingurune naturalaren, hirigintzako garapenaren eta guztia hartzen duen arroaren ezaugarriak kontuan hartuta, bi araudiak bateragarri egitea gomendatzen dute, eta Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPak xedatutakoa aplikatzen dute, behin betiko onartutako ibaien eta erreken ertzen Lurralde Planaren arabera, udalaren plangintzak, Lurrazaleko Urak Babesteko Lurzoru Urbanizaezin bezala kalifikatutako lurzoruari dagokionean.

Halaber, lehorreko esparruko itsasadarretako ertzetan indarreko hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren gainean, ibaien eta erreken ertzen Lurralde Planean definitutako antolamendu-baldintzak ezarriko dituzte.

Lurrazaleko Urak Babesteko Lurzoru Urbanizaezina inguratzen duen lurraldearen gainerako zatia, lehorreko kostaldeetarako bezala erregulatuko da.

4.3.4 Hirigintzako hazkuntzak eta babes-zortasuna

Lehen aipatu dugun bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzean, Kostaldeari buruzko Zuzendaritza Nagusiak, ia euskal itsasertz osoan, itsasoko erriberako, itsasoko eta lehorreko jabari publikoaren eta babes-zortasuneko zonaren mugaketak egin ditu.

Halaber, LZPek proposatutako garapenek, babes-zortasuneko zonan barne hartutako eremuak dituzten kasuak ere zehaztu dituzte (Diagnostikoa izeneko II. Liburukiko 3.1.4. idatz-zatia). Guztieta, mugatzeak behin betikoak dira.

Honen inguruan, ondorengo hau aipa daiteke:

Orokorrean, LZPen proposamenek etorkizuneko hiri-hazkuntzak zehazten dituzten eremuak, gutxi gorabeherako kokapena adierazteari dagokionean, neurri aldakorreko eremuak bezala definitu dituzte. Horregatik, babes-zortasuneko zonekin gainjartzea, orientabide bat bezala ulertu behar da eta ez behin betiko balio duen zerbait bezala. Gainera, babes-zortasunaren barne sartutako eremu hauetako zenbait sektore hiritar bihurtuko balira ere, ez litzateke arazo handia izango, zortasun-zonan, Kostaldeein buruzko Legean xedatutakoarekin bateragarri diren hiri-lurzoruko kalifikazioak defini daitezkeelako.

Hala ere, antzemandako kasuak ikusita esan daiteke, honako zona hauetako sektore txikitik bakarrik bat datozela:

Bermeoko portuaren ipar-mendebaldean, Aritxatxuko hondartzaren inguruan. Dentsitate Ertaineko Bizitegi-eremuko proposamena.

Mutriku, portuaren hegoaldean. Dentsitate Baxuko Bizitegi-proposamena.

Zumaia, Narrondon, Txikiardi, Mugerza eta Larrondoko Erriberen inguruan. Dentsitate Altuko Bizitegi-eremuko proposamena.

Zumaia, Koitxoeko ingurua. Dentsitate Altuko Bizitegi-eremuko proposamena.

Zumaia, Akebano inguruan, San Telmo ermitaren hegoaldean. Dentsitate Altuko Bizitegi-proposamena.

Zarautz, Golf-zelaiaren hegoaldean, San Pelaio ibaiaren eskuinaldean (Zubiondo ingurunea). Dentsitate Baxuko Bizitegi-eremuko proposamena.

Orio, Bilbao-Behobia autobidearen bi aldeetara, Dentsitate Altuko Bizitegiak egiteko proposatutako bi eremu.

4.4 Itsas Ingurunearen plangintza

Aplikazio-eremuaren azterketan azaldu duten bezala, itsas ingurunean Itsasertzeako LAParen erabakiak, itsasbehera eskoratuko lerroak edo ekinozio-marea bizi maximoak eta 50 m-ko isobata-lerroak mugatutako zabalera aldakorreko zerrendan sartutako zona azpimarealari lotuak daude. Horrenbestez, kapitulu honen edukia, urak etengabe hartzen duen ingurune bati lotua dago.

Ingurune honen ezaugarri biofisiko bereziak, bertan garatzen diren erabilerak eta bertan hainbat eskuduntza emateko plangintza, lehorreko ingurunerako defendatutakotik oso diferentea da.

Itsas ingurunean, dagokion kostalde-zona edo -tartearen ingurumen-balioaren eta bokazioaren arabera, **plangintza-sektore** batzuk ezartzen dira. Logikoa denez, itsas inguruneari buruzko ezagutzaren egoeraren eta burututako azterketen xehetasun-eskala txikiagoaren ondorioz, ezin dizkiogu sektore horiek aztergai den eremu osoari esleitu, lehorreko ingurunean egin bezala; horregatik, sektoreak **erabilera lehenetsietarako** euskarri moduan ezagutzeko identifikatu ditugu (erabilera lehenetsizat jotzen ditugu sektore bakoitzeko helburuak lortzeko eragin ona izan dezaketen erabilerak).

4.4.1 Arau orokorrak

Itsas ingurunearen plangintzan bildutako artezpide orokorretan proposamen eta gomendio batzuk ematen ditugu Planaren helburu orokorrak lortzera bideratuta; hala ere, horien garapena eta aplikazioaren eskumena beste bitarteko juridiko-administratibo mota bati dagozkio. Ondorengo gaiei buruzkoak dira:

- **Hondartzak leheneratzera bideratutako aleen erauzketa**
- **Arrantza eta itsaski- zein alga-bilketa**
- **Akuikultura-instalazioak**
- **Portuetan eta nabigazio-eremuetan balizak, buiak edo seinaleztapen-egiturak jartzea**
- **Hornidura eta hozketarako ur-hartuneak**
- **Urpeko eroanbideak**
- **Hondakin-urak tratatzeko instalazioak**
- **Itsaspeko hustubideak**
- **Bainu- edo kontserbazio-zonetako hondakin-urak isurtzeko puntu iraunkorrak**
- **Dragatzean sortutako material geldoen isurketak**

Jarduera horietarako guztietarako, jarduera-erak proposatzen ditugu, horiengan edo beste jarduera batzuen gain erasan txarrik izan ez dezaten. Gainera, ingurune hartzailea ahalik eta gutxien aldatzeko ahalegina egiten dugu. Halaber, jarduera horiek egiteko beste jarduera batzuekiko gutxieneko distantziak adierazten ditugu, horien funtzionamendu egokia alda ez dezaten.

Itsas-ingurunearekin lotutako zehaztapen guztiak, aipatutako Kostaldeein buruzko Legean xedatutakoa kaltetu gabe eginak daudela ulertuko da, bereziki, 111. eta 114. artikulua aplikatzeari dagokionean:

111. artikulua:

1. Interes orokorreko obra gisa kalifikatuko dira eta Estatuko Administrazioak izango du hauen eskuduntza:

- a. Itsasoko eta lehorreko jabari publikoa babestu, defendatu, zaindu eta erabiltzeko beharrezkoak jotzen dituzten obrak, jabaria osatzen duten ondasunen jatorria edozein izanda.*

- b. *Hondartzak sortu, birsortu eta leheneratzeko obrak.*
- c. *Hirigintza-plangintzan aurreikusi ez diren itsasora heltzeko jendearentzako bideak egiteko obrak.*
- d. *Itsasoan eta barneko uretan kokatutakoak, Autonomia Erkidegoen eskuduntzak kaltetu gabe.*
- e. *Itsasoko seinaleak eta kostaldeak argiztatzeko obrak.*

2. *Aurreko idatz-zatian aipatutako interes orokorreko obrak gauzatzeko, obrek eragina duten Autonomia Erkidegoaren eta Udalaren txostena eskatuko dute. Hauek, hilabeteko epea dute, itsasertzean eragingo duten lurraldearen plangintzako tresnak erabilia eta indarrean dagoen hirigintzako plangintza kontuan hartuta, obrarekin ados dauden edo ez datozen bat jakinarazteko. Txosten horiek egiten ez badituzte, obrak onartu dituztela ulertuko da. Obrekin bat ez badatoz, Ingurumen Ministerioak espedientea Ministroen Kontseilura eramango du, eta honek, proiektua aurrera eraman ala ez erabakiko du. Proiektuarekin aurrera jarraitzeko erabakitzen badu, plangintza aldatu edo berraztertzeke prozedura hasteko aginduko du, dagokion legerian ezarritako izapidetzea jarraituta.*

Lehen aipatutako tresnak ez badaude edo interes orokorreko obra bertan aurreikusita ez badago, proiektua, eragina duten Autonomia Erkidegora eta Udalera igorriko dute, hauek plangintza idatzi edo azter dezaten eta, era horretan, plangintza proiektuaren zehaztapenetara egokitu ahal izango dute, onartu eta gehienez sei hilabeteko epean. Plangintzaren egokitzapena gauzatu gabe epea amaituz gero, obra gauzatzeko oztoporik ez dagoela ulertuko da.

3. *Artikulu honetako 1. idatz-zatian aipatutako interes orokorreko obra publikoek ez dute Toki Administrazioen lizentzia beharko edo ez dute hauen beste edozein motatako kontrolik izango, eta beste Administrazio Publikoek ezingo dute obra horiek gelditu, bidezkoak diren errekurtsioak ezartzeko aukera kaltetu gabe.*

114. artikulua

Lurraldearen antolamendurako gaietan, eta itsasertza, portu, hirigintza, itsasora egindako isurtzeak eta Lege honen esparruarekin lotutako gainerako gaietan, bakoitzaren Estatutuen arabera, esleituta izango dituzten eskuduntzak gauzatu dituzte Autonomia Erkidegoek.

Aurreko paragrafoan aipatzen den lurraldearen eta itsasertzaren antolamenduari buruzko Autonomia Erkidegoaren eskuduntza, itsasoko eta lehorreko jabari publikoko lehorreko esparrura bakarrik helduko da, jurisdikziopeko urak eta barneko urak sartu gabe.

4.4.2 Erabileren definizioa itsas ingurunean

Itsas inguruneke erabileren definizioa LAPen baliaitutako definizioen sistema eta egitura burutu dugu. Hala ere, logikoa denez, itsas ingurunean garatu beharreko jarduerak lehorreko ingurunean oso bestelakoak dira; aipatutako LAPEk, ordea, erabilera eta jardueren sistema lehorrerako burutu dute.

Definitutako jarduerak ondorengoak dira:

- **Kontserbazio eta ingurumenari buruzkoak.** Bertan sartzen dira hala kontserbazio zorrotzeko nola ingurumenaren hobekuntzako jarduerak.
- **Aisialdi eta atsedenaldiri buruzkoak.** Lehorreko ingurunean ere aztertutako jarduerak hemen kokatzen dira, adibidez, erabilera publiko intentsiboan

bildutako batzuk edo erabilera intentsibokotzat jotako beste batzuk ere, adibidez, nabigazioa edo atrakatzea (instalazioekin).

- **Lehen mailako baliabideen ustiapenari buruzkoak.** Aleak erazteko jarduerak biltzen ditu (hondartzak leheneratzeko), baita arrantza profesionala eta alga- zein txanel-bilketa eta akuikulturarako kaiolak ere.
- **Azpiegiturei buruzkoak.** Hemen kokatzen dira seinaleztapen-jarduerak, atrakalekuen ezarpena eta nabigazioari eusteko portuak eta dragatzeak. Gainera, kostaldearen defentsa-jarduerak, itsaspeko hustubideen eraikuntza, ur-hartuneak, itsaspeko kable-lineak eta eroanbideak, baliabideen prospekzio-jarduerak eta hondakinen ezabapena.

4.4.3 Plangintza-sektoreen definizioa itsas ingurunean

Itsaso-ingurunearen plangintzako arloak euren erabilera-bokazioaren eta ingurumen-balioaren arabera definitu ditugu, eta goian sistematizatutako erabilera lehenetsiak garatzeko eta horien euskarrirako zona plangintzako arlotzat hartu dugu.

Ondoren deskribatuko ditugu, horrela osatutako sektoreak.

A. INGURUMENAREN HOBEKUNTZA ETA BABESA

A.1. Kontserbazio Zorrotzeko Zonak

Balio altuko zonak dira eta, bertan, helburua gizakiak ahalik eta gutxien esku hartzea da. Ikerketa eta instalazioen erabilera didaktikoa besterik ez dugu bultzatuko. Honako zona hauek dagozkie:

- * San Juan de Gaztelugatxe/Aketzeko itsaspeko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Mape-tik gora, Urdaibaiko marearteko lokatzak
- * Ogoño-ko itsaslabarra (50 m-ko zerrenda)
- * Algorri-ko marearteko zabalgunea eta itsaspeko itsaslabarrak Debaraino (50 m-ko zerrenda)
- * Villano, Izaro, San Nicolás, Santa Klara eta Amuitz uharteak (50 m-ko zerrenda)

A.2. Ingurumenaren Hobekuntzako Zonak

Zona hauetan natur balioak altuak dira eta, berriztapeneko ekintza zehatzen bidez, hobetu egin daitezke. Ondorengo zona ere honen barnean kokatzen da:

- * Txingudiko marearteko lokatzak

B. AISIA

B.1. Erabilera Publiko Estentsiboko Zonak

Denbora libre eta aisialdirako erabilitako zonak dira eta, bere balio altuak aholkagarri egiten du instalazio iraunkorrik bertan ez jartzea. Bertan sartzen dira seinaleztatutako eremuak edo, beste maila batean sartu izanagatik, argi balizatu gabe Kostaldeein buruzko Legean jasotakoak (hondartzetan 200 m-ko zerrenda eta itsasertzeko gainerako tokietan 50 m-koa). Ez dira eremu hauetako itsaslabar guztiak sartuko.

Beti, bainatzeko (banderak eta laguntza-abisuak), kirol-arrantzarako (bainatzeko zonetatik, arrantza profesionaleko aparailuetatik eta akuikulturako instalazioetatik 100 m-ra) eta nabigatzeko ezarritako segurtasun-arauak errespetatu behar dira.

Bertan, honako toki hauek sartuko dira:

- * Hondarribiako hondartza (itsasbeherako lerrotik 200 m-ko zerrenda)
- * Jaizkibelgo itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Uliako itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Zurriolako hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Urumeako itsasadarra
- * Urgullgo itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Kontxa/Ondarretako hondartzak (200 m-ko zerrenda)
- * Igeldoko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Antillako hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Oriako itsasadarra, N-634 errepidearen zubitik gora
- * Mollarriko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Zarauzko hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Zarautz/Ubiriko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Malkorbeko hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * San Antongo itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Gaztetapeko hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Getaria/Orruako itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Santiagoko hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Zumaiako itsasadarra, N-634 errepidearen zubitik gora
- * Itzurungo hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Debako hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Debako itsasadarra, Mutrikura doan zubitik gora
- * Mutrikuko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Saturrarango hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Arrigorriko hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Ondarroako itsasadarra (zubi zaharretik gora)
- * Ondarroa/Mendexako itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Karraspioko hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Lekeitioko itsasadarra
- * Isuntzako hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Lekeitio eta Elantxobe arteko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Urdaibaiko itsasadarra, Mundakatik gorako uretan (ubide nagusiko mantentze-dragatzeak salbuetsita)
- * Laidako hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Matxitxakoko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Bakioko hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Bakio eta Villano arteko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Gornitz/Plentziako hondartzak (200 m-ko zerrenda)
- * Plentziako itsasadarra: errepideko zubitik gora
- * Barrika eta Getxo arteko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Sopelana/Azkorri/Arrigunaga/Ereagako hondartzak (200 m-ko zerrenda)
- * La Arenako hondartza (200 m-ko zerrenda)

- * Pobeñako itsaslabarra
- * Muskizko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)

B.2. Erabilera Publiko Intentsiboko Zonak

Instalazio iraunkorreko zonak dira eta batez ere nabigaziorako erabiltzen dira. Ondorengoak dira:

- * Txingudiko badia eta kanala
- * Kontxako badia
- * Plentziako badia eta itsasadarra, Barrikara doan errepideko zubira arte
- * Bilbaoko itsasadarra, Deustuko kanaletik gora

C. BALIABIDEEN USTIAPENA

Oinarrizko baliabide mineral, animal eta begetalak atera eta ustiatzeko zonak. Bertan, honako hauek bereizten dira:

C.1. Hondartzak leheneratzera bideratutako aleen erauzketa-zonak. Kontserbazio-zonak edo erabilera estentsibokoak saihestu behar dira eta, gainera, harea nahikoa eduki behar dute substratuan aldaketa berezirik gerta ez daitezen. Honako hauek proposatzen dituzte:

- * Azabartzako hareatza
- * Debako hareatza
- * Laidako hareatza

C.2. Arrantza- eta bilketa-zonak. Baliabide egokiak dauzkatenak dira. Honako hauek dira:

- * Txingudiko itsasadarra, Santiagoko zubitik behera
- * Jaizkibelgo urpeko itsaslabarrak
- * Uliako urpeko itsaslabarrak
- * Urgull eta Igeldoko urpeko itsaslabarrak
- * Orioko bokalea
- * Mollarriko urpeko itsaslabarra
- * Getariako urpeko itsaslabarrak
- * Mutrikuko urpeko itsaslabarrak
- * Sagustango badia
- * Ondarroa/Lekeitio/Ea-ko urpeko itsaslabarrak
- * Ogoño/Izaroko urpeko itsaslabarrak
- * Urdaibaiko itsasadarra, Mape errekatik behera (San Cristóbal auzoa)
- * Matxixakoko urpeko itsaslabarrak
- * Armintza/Villanoko itsaslabarrak
- * Plentziako itsasadarra, Barrikara doan errepideko zubira arte
- * Barrika eta Getxo arteko urpeko itsaslabarrak
- * Bilbaoko abra
- * Muskizko urpeko itsaslabarrak

C.3. Akuikultura-zonak. Jarduerak ingurumenean eragin berezirik ez duten senaiak eta ibaiak. Honako hauek dira:

- * Agiti kala (Igeldo)
- * Orrua kala (Zumaia)
- * Bedarona kala (Ea)
- * Plentziako itsasadarra

D. AZPIEGITURA ETA ISURKETA ZONAK

Materialak biltegitratzeko eta saneamenduko azpiegituren, edo instalazio iraunkor baten beharrez interbentzio bat izandako zonak dira.

4.4.4 Sektoreen esleipena itsas ingurura

Itsasertz-zona batzuei buruzko ezagutza-mailak itsas inguruneko arlo batzuk identifikatzeko modua ematen dute, argi eta garbi ezagut daitezkeenak erabilera eta jarduera lehenetsien euskarri moduan, eta aurreko atalean definitutako arloei esleitzen zaie.

A.1. Zaintza zorrotzeko zonak

- * San Juan de Gaztelugatxe/Aketzeko urpeko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Urdaibaiko marearteko lokatzak Mapetik gora
- * Ogoñoiko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Algorriko marearteko zabalgunea eta Debarainoko urpeko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Villano, Izaro, San Nicolás, Santa Klara eta Amuitz uharteak (50 m-ko zerrenda)

A.2. Ingurumen-hobekuntzako zonak

- * Txingudiko marearteko lokatzak

B.1. Erabilera publiko hedagarriko zonak

- * Hondarribiako hondartza (itsasbeherako lerrotik 200 m-ko zerrenda)
- * Jaizkibelgo itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Uliako itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Zurriolako hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Urumeako itsasadarra
- * Urgullgo itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Kontxa/Ondarretako hondartzak (200 m-ko zerrenda)
- * Igeldoko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Antilla hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Oriako itsasadarra, N-634 errepidearen zubitik gora
- * Mollarriko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Zarauzko hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Zarautz/Ubiriko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)

- * Malkorbeko hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * San Antongo itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Gaztetapeko hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Getaria/Orruako itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Santiagoko hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Zumaiako itsasadarra, N-634 errepidearen zubitik gora
- * Itzurungo hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Debako hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Debako itsasadarra, Mutrikura doan zubitik gora
- * Mutrikuko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Saturrarango hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Arrigorriko hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Ondarroako itsasadarra (zubi zaharretik gora)
- * Ondarroa/Mendexako itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Karraspioko hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Lekeitioko itsasadarra
- * Isuntzako hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Lekeitio eta Elantxobe arteko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Urdaibaiko itsasadarra, Mundakatik gorako uretan (ubide nagusiko mantentze-dragatzeak salbuetsita)
- * Laidako hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Matxitxakoko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Bakioko hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Bakio eta Villano arteko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Gorlitz/Plentziako hondartzak (200 m-ko zerrenda)
- * Plentziako itsasadarra: errepideko zubitik gora
- * Barrika eta Getxo arteko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)
- * Sopelana/Azkorri/Arrigunaga/Ereagako hondartzak (200 m-ko zerrenda)
- * La Arenako hondartza (200 m-ko zerrenda)
- * Pobeñako itsaslabarra
- * Muskizko itsaslabarrak (50 m-ko zerrenda)

B.2. Erabilera Publiko Intentsiboko Zonak

- * Txingudiko badia eta kanala
- * Kontxako badia
- * Plentziako badia eta itsasadarra, Barrikara doan errepideko zubira arte
- * Bilbaoko itsasadarra, Deustuko kanaletik gora

C.1. Aleak ateratzeko zonak

- * Azabartzako hareatza
- * Debako hareatza
- * Laidako hareatza

C.2. Arrantza- eta bilketa-zonak

- * Txingudiko itsasadarra, Santiagoko zubitik behera
- * Jaizkibelgo urpeko itsaslabarrak
- * Uliako urpeko itsaslabarrak
- * Urgull eta Igeldoko urpeko itsaslabarrak
- * Orioko bokalea
- * Mollarriko urpeko itsaslabarra

- * Getariako urpeko itsaslabarrak
- * Mutrikuko urpeko itsaslabarrak
- * Sagustango badia
- * Ondarroa/Lekeitio/Eako urpeko itsaslabarrak
- * Ogoño/Izaroko urpeko itsaslabarrak
- * Urdaibaiko itsasadarra, Mape errekatik behera (San Cristóbal auzoa)
- * Matxitxakoko urpeko itsaslabarrak
- * Armintza/Villanoko itsaslabarrak
- * Plentziako itsasadarra, Barrikara doan errepideko zubira arte
- * Barrika eta Getxo arteko urpeko itsaslabarrak
- * Bilbaoko abra
- * Muskizko urpeko itsaslabarrak

C.3. Akuikultura-zonak

- * Agiti kala (Igeldo)
- * Orrua kala (Zumaia)
- * Bedarona kala (Ea)
- * Plentziako itsasadarra

4.4.5 Erabileren erregulazioa

Aipatu den bezala, itsas ingurunean erabilerak eta jarduerak arautzeko mekanismoa era askotako arloetan **erabilera lehenetsiak** esleitzean datza (erabilera lehenetsizat jotzen ditugu sektore bakoitzeko helburuak lortzeko eragin ona izan dezaketen erabilerak edo eragin txarrik ez daukatena). Erabilera horiek baliatzeko baldintzak adierazten ditugu, baita erabilera berezi batzuk ez baliatzea aholkatzen dugun zonak ere.

Itsas ingurunearen era askotako plangintza-arloetako erabilerak arautzeko, horietako bakoitzerako erabilera lehenetsiak ezarri ditugu, baita erabilera horiek baliatzeko baldintzak ere. Hori guztia dagokion araudi-matrizean agertzen da.

Bestalde, definitutako erabilera eta jarduera batzuk itsas inguruneako plangintza-arlo jakin batzuetatik kanpo geratu behar dira, horrelako jarduerak ingurune hartzailean izango luketen eragina dela eta.

Hala, Kontserbazio eta Ingurumen Hobekuntzari buruzko plangintza-arloetan ondorengo erabilerak kanpoan geratu dira:

- C1.1. Hondartzak leheneratzeko dragatzea
- C2.1 Arrantza eta itsaski- zein alga-bilketa
- C3.1. Txanelak eta kaiolak
- D1.2. Atrakalekuak
- D1.3. Kirol-, arrantza- eta merkataritza-portuak eta -kaiak
- D1.4. Mantentzeko dragatzeak
- D2.1. Komunikazioko obra publikoen ainguratzea edo pilotajea

- D3.1 Murrak
- D5.1. Hornidura eta hozketa: ur-hartuneak
- D6.1. Kableak eta eroanbideak
- D8.1. Hiriko hondakin-uren isurketa

Erabilera publiko estentsiboko zonen plangintza-arloetan, ondorengo erabilerak kanpoan geratzen dira:

- C1.1. Hondartzak leheneratzeko dragatzea
- C2.1 Arrantza eta itsaski- zein alga-bilketa
- C3.1. Txanelak eta kaiolak
- D1.2. Atrakalekuak
- D1.3. Kirol-, arrantza- eta merkataritza-portuak eta -kaiak
- D1.4. Mantentzeko dragatzeak
- D2.1. Komunikazioko obra publikoen ainguratzea edo pilotajea
- D5.1. Horniketa eta hoztea: ur-hartuneak
- D6.1. Kableak eta eroanbideak
- D8.1. Hiriko hondakin-uren isurketa

Lehen mailako baliabideen ustiapenerako plangintza-arloetan (arrantza eta bilketa), ondorengo erabilerak kanpoan geratzen dira:

- D8.1. Hiriko hondakin-uren isurketa

Azkenik, lehen mailako baliabideen ustiapenerako plangintza-arloetan (akuikultura), ondorengo erabilerak geratzen dira:

- D8.1. Hiriko hondakin-uren isurketa
- D1.2. Atrakalekuak

4.5 Jarduteko proposamen orokorrak

Plan honetako V. Liburukian Azterlan Ekonomikoa eta Finantzarioa, eta Jarduteko Programa biltzen dira. Bertan, administrazio-arloko zein jarduerak burutzeko hainbat proposamen orokor egiten dira. Horiek guztiak beharrezkoak dira, LAP honen helburuak lortzeko. Helburu horietako zenbait, ondorengo ataletan justifikatzen dira.

4.5.1 LAAetako 3. Eranskinaren interes naturalistikoko eremuak mugatzea eta antolatzea

LAAetako Ingurune Fisikoaren Antolamendurako 8. Artezpideko B idatz-zatiko 7. kapituluaren adierazten den bezala, bertako 3. Eranskinean sartutako espazioak "kontuan hartu ahal izango dituzte, Lurraldearen Antolamenduari buruzko maiatzaren 1eko 4/1990 Legearen, eta lurzoruaren erregimenari buruzko legeen ondorioz ezarritako lurraldearen eta hirigintzako antolamendurako tresnek, lurraldea sailkatu eta kalifikatzeko haien proposamenetan sartzen badituzte".

Testuinguru honetan sartzen da, beraz, itsasertzaren esparruan aipatutako Eranskinean bildutako espazioen interes naturalistikoa udalaren plangintzara pasatzeko LAAen agindua, lurzoruaren erregimenari buruzko legeria aplikatuz, lurraldearen sailkapenean eta kalifikazioan kontuan hartzeko. Eta plangintza horri dagokio, adierazitako balio naturalak kontuan hartuta, espazioen mugatze fisikoa egitea. Espazioak, honako hauek dira:

- . Pobeñako padurak eta Arena hondartza
- . Nerbioiko ezkeraldeko itsasertzeako mendiak eta muinoak
- . Gorlitz-Armintza itsasertzeako zatia.
- . Armintza-Bakio itsasertzeako zatia
- . Gaztelugatxe-Matxitxako itsasertzeako zatia
- . Otoioko mendiak eta itsaslabarrak
- . Mendexa eta Ondarroa arteko kostaldeko ibarrak
- . Mutriku-Saturrarango itsaslabarrak
- . Arno-Olatz mendia
- . Punta Aizturu (Mendata)-Zumaia itsasertzeako zerrenda
- . Santiagoko aurrehondartzako (Zumaia) hareatza eta padura
- . Urola ibaiaren bokalea
- . Getariako San Anton
- . Andutz mendia
- . Garate-Santa Bárbara. Artelatz-basoko lekukoak
- . Inurritzako dunak eta itsasadarra (Zarautz)
- . Padurak Oriako itsasadarrean
- . Mendizorrotzeako errekak
- . Uliako itsaslabarrak (Donostia-San Sebastián)
- . Jaizkibel mendia
- . Bidasoa ibaiko padurak eta terrazak

Oso interesgarria da Nerbioi ibaiaren ezkeraldeko itsasertzeako mendi eta muinoek osatutako espazioa. Bilbao metropolitarrerako konurbazioa bezalako jende asko bizi den ingurune batean, naturarekin lotuta espazio horrek dituen balio eta ezaugarriak, bere kontserbazioa bermatuko dituen kalifikazioa izan behar dute, dagokion Lurraldearen Zatiko Planean adierazi bezala.

4.5.2 Espazio babestu berriak aitortzeke proposamena

Lurzoruaren erregimenari buruzko legeria kontuan hartu gabe, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesten duen ekainaren 30eko 16/1994 Legea aplikatuz, itsasertzeako hainbat zonak dituzten balio naturalistiko bereziei erreparatuz, EAEko Espazio Babestuen Sarea osatzeko, honako espazio hauek proposatzen dituzte:

- ✦ Gorlitz-Armintza itsasertzeako zatia
- ✦ Armintza-Bakio itsasertzeako zatia
- ✦ Gaztelugatxe-Matxitxako itsasertzeako zatia
- ✦ Otoioko mendiak eta itsaslabarrak
- ✦ Punta Aizturu (Mendata)-Zumaia itsasertzeako zerrenda

- * Mendizorrotzeko errekak
- * Jaizkibel mendia

Espazio hauek mugatu eta definitzeko, eta dagokion antolatzeko irudia esleitzeko, Naturguneak, eta Basoko Flora eta Fauna Kontserbatzeko martxoaren 27ko 4/1989 Legean ezarritakoa betez, dagokion Baliabide Naturalen Antolamendu Plana idatzi beharko dute.

4.5.3 Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesten duen 3/1998 Legearen 51. artikulua arabera, Kalte Errazeko Ingurumena duen Zona mugatzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesten duen 3/1998 Legearen 51. artikuluan, honela definitzen dute **Kalte Errazeko Ingurumena duen Zona**: *“bertako ingurumen-arloko balioen eta hauen ahultasunaren ondorioz dituzten ezaugarri bereziengatik, ingurumen-arloko kalte handiagoak jasan ditzakeena (...)”*

Legearen arabera, kalte errazeko ingurumena duten zonak, balio jakinak kontuan hartuta katalogatu behar dira. Itsasertzeko eremuan, kalte errazeko ingurumena duten zonen balio horien artean, honako hauek daude gutxienez:

- a) *“Itsasoko eta lehorreko jabari publikoa eta bere babes-zortasuna*
- c) *Akuiferoak betetzeko eremuak, eta hauek kutsatzeko arrisku handia duten zonak, beti ere katalogatuak badaude*
- b) *Korrante jarraituko ibilgu naturalak, lakuen eta urmaelen hondoak, eta ibilgu publikoetako azaleko urtegiak barne hartzen dituen jabari publiko hidraulikoa. Jagoletza-zonako eta ertzen zortasun-zonako eremuak, beti ere katalogatuak badaude.*
- d) *Interes naturalistiko handiko eremu edo enklabeak, beti ere katalogatuak badaude”*

Irizpide horiek elkartuz, *EAEko Kalte Errazeko Ingurumena duten Zonen Katalogoan*, honako eremu hauek sartu behar direla adierazi dute:

- a) Babes Berezikoak bezala sailkatutako zonak. Hauek, orokorrean, 60ºko aldapa baino txikiagoa duten itsaslabarren kasuan izan ezik, itsasoko eta lehorreko jabari publikoak bezala sailkatzen dira, eta honako unitate hauek osatzen dituzte:
 - Kostaldeko itsaslabarrak
 - Urradurako plataformak
 - Dunak
 - Lurraldeko itsasoko uharteak
 - Hondartza naturalak
 - Itsasertzeko landaretza bereziko eremuak eta marearteko zonak
- b) Akuiferoak kutsatzeko arrisku handi eta oso handiko eremuak, *EAEko Akuiferoak Kutsatzeko Arriskuko Maparen* arabera, 1: 25.000 eskalan.

c) Interes naturalistiko handiko enklabeak, honako eremu hauetan sartuta:

- Itsasertzeko esparruan sartutako Espazio Natural Babestuak
- Hezeguneen LAPak antolatutako Hezeguneak
- EAEko Espazio Natural Babestuen Sarea osatzeko LAP honetan proposatutako zonak.

4.5.4 Kostaldeak Bereziki Babesteko Esparruen definizioa, Kostaldeei buruzko Legearen 22. artikularen arabera

Babes Zorrotz Bereziko mailetako Itsasertzeko LAParen xedapenen eta, Kostaldeei buruzko Legearen II. Tituluaren 22. artikularen arabera, lur hauetan Estatuko Administrazioari esleitu zaizkion eskuduntzak burutzearen artean eman daitezkeen kontraesanak ekiditeko asmoz, LAP honetan **Babes Zorrotz Bereziko** azpimailan LAP honek sailkatutako zonak, **Kostaldek Bereziki Babesteko esparruak** aitortzea proposatu dute.

Maila hori, honako unitate hauek osatzen dute:

- 60ºko aldapa baino handiagoa duten kostaldeko itsaslabarrak
- Urradurako plataformak
- Dunak
- Lurraldeko itsasoko uharteak
- Hondartza naturalak
- Eremu bereziak

22. artikulua hori aplikatuz, Estatuko Administrazioak, kostaldeko zati hauek babesteko arauak onartu ahal izango ditu, bertan, beste hainbaten artean, honako erabilera hauek debekatuz:

- Ingurune hauetako babes-zortasuneko zonan: Kostaldeei buruzko Legearen 25.3. artikuluan aurreikusitako ezohiko erabilerak (erabilera publikoa, eta arrazoi ekonomiko justifikatuak).
- Itsasoratzeko zortasunean: Kostaldeei buruzko Legearen 28.1. artikuluan esplizituki jasotako itsasoratzeko bideen aurreikuspena.

Arauetan sartu beharreko kostaldearen luzera, gutxienez, hurrenez hurren itsasertzeko dinamikari edo lurraldeari buruzko unitate fisiografiko edo morfologikoari lotuko zaio, edo hala badagokio, udalerrri mugakide oso bati edo gehiagori (Araudiaren 41.3. artikulua).

Arau horien inguruan, eragina duten Autonomia Erkidegoak edo udalek txostena egingo dute.

4.5.5 Saneamendu Planen garapena

Balio naturalistiko bereziko zonak eragiten dituzten saneamendu-planak garatzeko ekintzek lehentasuna dute. Horregatik, LAP honetan lehentasuna du Lamiaran, Ondarroa eta Laukiz-Gatikako Ur Zikinen Araztegien obren programazioari ekiteak.

4.5.6 Leheneratu beharreko hondartzak eta senaiak

Gaur egun itxita dauden industria-instalazioek edo ekipamenduek okupatu edo aldatu izanagatik, orain erabilera zehatzik ez duten hondartzak eta senaiak azpimarratu behar dira, kontuan izanda ingurumenaren ikuspegitik duten ahalmenak, administrazio eskudunaren esku-hartze aktiboaren bidez leheneratzea justifikatzen duela. Bertan, honako hondartza hauek aurkituko ditugu:

- Kondemasti (Pasaia)
- Inpernupe (Zumaia)
- Ondarbeltz (Mutriku)
- Basordas (Lemoiz)
- La Bola eta Las Arenas (Getxo)